

Hizkuntza eta izatasuna Aristotelesengan

Egilea: **XABIER ARREGI GORDOA**

Urtea: **1986**

HIZKUNTZA ETA

IZATASUNA

ARISTOTELESENGAN

XABIER ARREGI GORDOA

86ko irailaren 11, Donostia

AURKIBIDEA

HITZAURREA	1
<u>ESANAHIA ETA IZATASUNA</u>	5
Sarrera	6
Ezagupenaren bi ezaugarri	8
Hizkuntzari buruzko gogoramen orokorrak	13
Erakuslea	16
Erakuslea eta izena	23
Gauza eta bere mugaketa	28
Esanahia eta zioa	33
Ondorio gisa	43
<u>OROKORRAREN EXISTENTZIAZ</u>	45
Sarrera	46
Izatasuna zehazten	48
Orokorraren existentziaz (zenbait ikus- puntu)	56
Orokorra zergatien ezagupena	62
Orokorra eta predikazioa	64
Ondorioak	70
<u>EZAGUPENA ETA HIZKUNTZAREN EGITURAK</u>	79
Sarrera	80
Gurekiko ezagugarria eta berez ezagun- garria	82

Bakunaz	85
"S P da" egituraz	88
Akzidentezko predikazioaz	93
Hizketa zientifikorako bi bide	99
Gertatzeaz	107
<u>OHARRAK</u>	
Esanahia eta izatasuna	115
Orokorrenaren existentziaz	119
Ezagupena eta hizkuntzaren egiturak	121
BIBLIOGRAFIA	124

HITZAURREA

Hemen azaltzen den lana hiru zatitan aurkeztua edo, hobe esanda, hiru atalez osatua dago. Hiru atalon lotura, ikusiko den legez, nabarmena den arren, hirurak bananduak edo autonomo bezala landuak izan dira bakoitzak bakarkako irakurketa bat onartzen duelarik. Gaia, orokorki hartua, Aristotelesenganako hizkuntzaren tratamendua honen eta gauzen arteko harremanetan, edo, beste hitz batzutan, hizkuntza zientifikuaren oinarrikoen egituren zehazpena izango litzateke, honetarako esanahia, orokorra eta predikazioa hartu dituzdalarik hiru lantxoaren muinezko gaiak bezala. Ez naiz hemen luzatuko lan bakoitzaren aurkezpenean honetarako aski da bakoitzaren sarerara jotzea eta ohar pare bat besterik ez dut emango. Lehenik iturriari buruzko ohar bat ematea komeni da eta zentzu honetan azpimarratu behar da aztertu diren arazoak ez direla gaiari buruzko bibliografia trinko batetan oinarritu, eta honen arrazoi lehen eta askia, beste batzuren artekoa izan daitekeen arren, gure artean harelako bibliografia bat aurkitzeko liburutegi baten existentzia eza izango litzateke. Lanen plateamendua, beraz, nahiz eta bibliografia bat erabili dudan, gehiago izanda Aristotelesen testu heuren ulerkuntza eta interpretazio bat burutzea, eztabaida exejetiko batean sartzea baino. Azken plateamendu hau errefusatzeko beste arrazoi bat, aipatutakoaz beste, nere grekeraren ezagupen mugatua izango litzateke, jende jantziagoaren interpretapenak arbuiatzea zilagitzen ez didana. Dena dela, ikusiko den legez, salbuespen txiki bat egin daiteke bi-

garren lantxoari dagokionean, orokorraren "ante rem" "in rem" ala "post rem" jitea eztabaidatzen denean; bertan, ikus daitezkeen bezala gaiariburuzko idazle banaka batzuren ^{iritziak} jasotze nahi izan ditut eta nolabait hoi en arteko eztabaidan sartu eta gainera jarrera bat ere hartzera ausartu.

Sigarrenik, eta garrantzizkoa deritzot honetaz argibideren ematea, grekerako testuen eta hitz teknikoan itzulpenari buruz ohar pare bat. Itzulpenari dagokienez bai grekerazko testuak bai zenbait itzulpen izan ditut aurrean emaitza, kasu bakoitzean, testu eta itulpen guztien kontrastatzearen ondorio izan delarik, beti, ulergarritasuna salbu, grekerazko testuari ahalbait eta hestukien lotuz. Hiztegi teknikoari dagokionez honako irizpideak erabili ditut:

1) gaur egungo joerak ezartzen dituen interpretazioa eta itzulpena:

Zentzu honetan ^{ὄρα} hitzaren kasua izan daiteke argigarria; tradizio luze batek "substantzia" bezala itzuli du eta gaur egun ere hitz hori erabiltzen da berataz idazten den askotan. Hemen, ostera, "izatasuna" aukeratu dut, bai zentzu filosofikoan bai hizkuntzazkoa zehazkiago adieraziko bait luke hitzaren esanahia.

2) Literaltasuna: hitz teknikoak ahalik eta erarik literale ^{naan} itzul-tzen saiatu nahiz, bera bait da, nere ustez, Aristotelesen asmoa erarik gardenean adierazteko bidea; horrela aipatu berria dudana "izatasuna" har daiteke adibide bezala eta baita ere "zer izana" "τι ἔστιν" -aren itzulpen bezala erabili dudana, eta, halaber, orokor καὶ ὅλων-rena.

3) Praktikotasuna: itzulpen literalak esapide bihurri xamara eman

go zukeen kasuan bera bakuntzera jo dut. Adib. "izatasun" ordez agian zuzenago izango zatekeen "izatetasun" hitza baina lehena, nere ustez, arinago ailega daiteke edonoren belarrira; bestalde, $\tau\acute{\iota}\ \eta\acute{\iota}\nu\ \xi\acute{\iota}\nu\alpha\iota$ esapidetaren kasuan, itzulpen literalak "izatea zen zera" tankerako esamolde konplejua emango zukeenez hobetsi izan dut "zertasuna" hitzera murriztu, berari dagokion ulerkuntza kontutan izanik.

Bestalde aipamen berezi bat merezi du espainieraz "discurso" frantsesez "discours" eta grekeraz, neurri batean, $\lambda\acute{o}\gamma\omicron\varsigma$ hitzaren bertsiorako erabili dudan "ihardun" hitzak. Aurreiritzia izaten da askotan erdararako hitz bat itzultzean eskerakoak ez ote duen galduko erdarakoari datzekiogun honako edo halako konotazioa, maiz erdarakora joaz; ez nago ni, lanean zehar ikusi ahal izango den bezalaxe, erdaratik hitzen aurka baina okerra deritzot halako aurreiritzi bati, alde batetik nekez lortuko dugulako edozein hitz itzultzean bere aberastasun guztian zertzea, izan ere ezin izango bait genuke logos hitzaren, eta ezta ere latinezko bere "ratio" itzulpenaren aberastasuna ez "discursó" eta ez beste ezein hitzetan adierazi, eta, bestetik, hitz bat itzultzean bere erabilera zehatza eta ez beste ahalazko batzu jaso behar direla deritzodalako. Kasu honetan "logos"-ek nere ustez bi zentzu bereizi jasotzen du: arrazoiak bata eta hitz egite soila, Descartesek ematen dion zentzia, bestea. Hau kontutan harturik "logos" eskeratzeko ihardun hitza aukeratzearen arrazoiak hauek izan dira 1) "ihardun"-en hitz egin esan nahia izatearen zentzua. 2) Irizpide praktikoa hemen ere, hau bere plas-

tikotasuna kontutan harturik batik bat, bai aditz bezala bai sustan-
 tibo bezala bai atzizkiekin osatua ~~edo~~ erabilgarria bait da. 3) Be-
 re "aritze" edo tankerako zentzia. "Discurso"-k nolabaiteko anbigui-
 tate interesgarria dakarren arren ez da interesgaitzagoa ikuspegi
 filosofiko batetik hizkuntzaren eta ekitearen arteko lotura hori,
 bai greziar filosofiaren aldetik -hirugarren atalean ikusiko dugun
 bezala Aristotelesentzat hizkuntza, ihardun, zientifiko ororen azken
 helburua ekintza irmoki funtsatzea eta adieraztea izango litzateke-
 bai egungo filosofiaren aldetik -gaur egungo hizkuntzaren filosofia-
 ren defendatzaileek bere eta ekintzaren arteko harremanketaren ga-
 rrantzia nabarmendu dute "hizketazko egiteak" eta halako kontzeptuak
 sortuz-. 4) Bai erabilera arruntean bai kultuan, askotan ez balitz
 ere azken honetan, funtsatua dago. Azkueren hiztegiara jotzen badu-
 gu han ikusiko dugu jasota "discurso" zentzia eta halaber Mogelek
 zentzu honetan egiten duen erabileraren aipamena.

traskripzioan

Grekerazko hitzen ikusiko da desordenu handi xamarría batzutan
 grekerazko grafia erabiltzen dudalarik eta beste batzutan la-
 tinezko grafiaarako traskripzioa. Honen arrazoia mekanografiatze la-
 netik sortutako neke besterik ez da izan baina, dena dela, aipatzen
 diren hitzak, behintzat lehenengo alditan, grekeraz idazten saiatu
 naiz.

I

ESANAHJA ETA IZATASUNA

SARRERA

Aristotelesen logikaren azalpen bat beti burutu gabeko lan bat gertatuko litzateke bere aurremate ontologikoak kontutan hartu gabe edo, are gehiago, bi hesparruok hestuki lotuak bezala behatu gabe, eta, seguruez gero, egungo logika formalaren ikuspegitik gogotan hartzearen ondorio okertzat jo beharko genuke; azken honek, izan ere, bi hesparru hoiien arteko etena ezartzen du, hastapen logikoak (identitatea, kontraesan eza, tertio excluso) hizkuntzaren eta arrazoimenaren, eta ez gauzen, ezaugarri bihurtuz, baija, gainera, tresna tekniko^{batzuz balizken da} eta bereizketa berezi batzu egiten ditu: hizkuntza ^{objektua} eta metahizkuntza edo hitzen erabilpena eta aipamena adibidez, Aristotelesengan aurkituko ez direnak. Baina, bestaldetik, aurkakoa ere egia da, hau da, bere ontologia ere ezin izango da ulertu bere logikaz gabetua, zeren gure izatearen atzemaketa hizkuntzaz arartekotua izango da eta. Marku honen barruan ulertu beharko dira bai lan hau bai ondoko biak ere.

Hemen, bi arloen arteko bereiz ezintasun hori kontutan harturik, eztekatze hau burutzeko behar diren egiturak zehazten saiatuko naiz baina hesparru murriztu, baina nere ustez oinarritzko, bati begira, hots, hitzen esanahiari. Zein baldintza pean eman daitekeen hitzek hizkuntza hutsaren hesparrua areagotzea eta eremu fisikua erdiestea azaltzen saiatuko naiz edo, beste hitz batzutan esanda, nola iragan daitekeen izenezko esanahitik benetazko esanahi batera.

Iragarketa hau zio adigaiari loturik agertzen zaigu eta edukien logika batetik hitz egitea zilegituko digu, Platonen ideien teoriari kontrajarria bezala eraikiko zena, azken hau nolabaiteko ereduaren logika batzatzeko joko genukeenez. Silakuntza honek bai hizkuntzen bai gauzaterian batasun bakunak mugatzera eramango gaitu, honela edukitzeaile eta edukinaren arteko harremanketarako bidea irekiz.

EZAGUPENAREN BI EZAUBARRI

1.1. Ezagupena erlatibo bezala.

Aristotelesek, sarritan, zientzia erlatibo bezala kontsiderazten duen ezaugarriketa bat ematen du. Halako ezaugarriketa batek elkarren aurrean dauden bi muturren lotura bideratuko duen ardatz bat botatzera behartuko du, alegia, ezagupenaren gaiaren eta ezagutzen duen sujetuaren arteko egokitzea bideratzera behartuko du, baina harremanketa mota hau zientziarako ezezik gizakiak bere ezagupen ahalmenen erabilierari menperatuko zaion edozein prozesutarako ere beharrezkoa izango da, adibidez, sentipenerako, esperientziarako, neurketarako, e. a. Esan nahi al du honek nolabait onertzen diela Platonek proposatzen zuen dualismoa Heraklito eta Parmenidesen proposapen monistek jarraitzen zien erazentzat irten bide bezala? edota, bi polo hoien artean egitezko batasun bat ezartzen dela. (egite bakar baten bidez harremanatzen direla) kontutan izanik, kontsideratu beharko ote dugu ezin izan dituela saihestu hala Heraklitoren nola Parmenidesen dotrinak kutsatzen zituzten konotazio mistikoak, zeintzu pentsamendua konkretutasunean, gauzate rian, murgilduta bezal^a gogartzen zuten? Bai lehen galderari bai bigarrenari baiezkako erantzun huts bat ematea Aristotelesen testuen nola egun arte eman diren interpretazioen aurka joango litzateke. Bigarren galderari erantzuna ondoko lerr^atan emango dut laburki, lehenag^aorena, ondea, pentsamenduaren eta gauzen arteko etenari da g^aokiona eta, beraz, abstrakzioaren arazoaren erantzuna izango dena,

neurri handi batean lan honen muineko arazoetako bat izango denez, beronen ikuspegi orokor batetatik behatu beharko da.

Aipatu dugun egitezko batasuna, ez da, inolaz ere, izatezko batasun bat, baizik eta nahas ezinak diren bi muturren ukitzearen emaitza, hau da, ez dago fusiorik, bi mutur heterogeneoren ⁽¹⁾ baktea bait da, eta horregatik gaiaren eta pentsamenduaren izatea beti era ezberdinean, bereiziak bezala, hartuko dira gogotan. Bi mutur hoi^{en} arteko lotura objektua pentsagarria den neurrian, pentsaGAI, ezagunGAI, den neurrian burutuko da, pentsamenduak, haatik, nola edo hala gaira murriztuko duen inolako gaitasunik abegitzen ez duen artean. Honek pentsamenduaren burujabetasun maila bat dakar, baina hau, egitea, pentsamenduan eta ez gauzan ⁽²⁾ ematen den neurrian azalduko da. Alabaina, pentsamenduaren burujabetasun hau gaiaren aur^urekotasun batekin era baterakoa izango da.

Harremanketa lokarri hau, beraz, pentsamendutik, hautemaketatik, ... gairuntzako norabidean emango da eta ez alderantziz; gaia, berez, ez da pentsamenduarekiko harremantzailea eta ezta ere bere hautemaketarekiko; izan ere, gaiak ez du aldaketarik jasango pentsatua, hautemana, edo neur^{tu}a denean, zerbaiten ikuspenak edo hizkuntza baten gramatikak ez bait dute ez ikusia ez hizkuntza mugatuko; gramatika ez da gai baten gramatika izango, ezin izango diogu gramatika bere gaiari atxeki, eta ezta ere ikuspena; ikuspena kolore ^a btena izango bait da baina ezin izango diogu ikusp^{io}en hori gaiari atxeki. Laburtuz, pentsamenduaren egiteak ez dira

inoiz objektuaren predikatu izango.

1.2. Ezagupena diferentzien ezagupena.

Baina ezagupen ororen azpian datzan jite harremantzaile horretaz gainera beharrezkoa izango da lotura bat banakakoa izatea ("sentipena nola zientzia bat banakakoak izango dira"). Bigarren baldintza hau zenbait ikuspegi filosofikotik, (greziar filosofiaren unibertsu ordenaketaren osotasunaren arrazo argigarri bat bilatzeko joeraren azalpen bezala) defendatzen zen erabateko batasunaren gainditu beharrari erantzun bat da. Joera hau nabarmena da Heraklitorengan, osotasunaren batasuna explizituki baieztatzen bait du: "ἐν παντί εἶναι" (50. fr.), baina baita ere esan daiteke Parmenides antzerako helburu baten atzetik doala mundu sentigarria erdeinatzean izatearen erabateko, bereizketa gabeko, batasun bat ezartzen duenean, eta, halaber, halako zeezer ere susma daiteke sofistekari dagokionean, batik bat iharduna, egia balio bakar bat izendatzean, izateria osoari inposatzen zaion instantzia bat bihurtzen duenean.

Aristoteles jarrerak baztertzea zilegituko diguten irizpide irno batzu bilatzen saiatuko da eta horretarako aipatutako su jetu eta objektuaren arteko etenarekin batera eman behar den baldintza berri bat aurkitzen du, hots, ezagupen prozesu oro era bereizi batean atzematen diren gaietan oinarritu beharra. Ezagupen oro diferentzien ezagupena izango da eta bera ere, bere baitan,

beste ezagupenetaz desberdina izango da. Alabaina, diferentzia hauek ez dira era desordenatu batean agertuko, baizik eta guztiak bere inguruan ordenatuko dituen nukleo bat izango dute heuren jatorrian, azken diferentzia bezala aurkeztuko dena eta, gainerakoak berarekiko harremanean ulertu ahal izango direnean besterik ez, berak, ostera, banatu bezala iraua ahal izango du bai izaterian bai adimenean. Geroago agertuko den arazoa da hau baina aurrera daiteke hemendik sortuko dela kategoria taula eta bere $\pi \epsilon \delta \sigma \xi \nu$ harremanketa, G. E. L. Owenek "focal meaning" deituko duena.

Baina, bestalde, ahalmenek ere ezarriko dute bere ordenua diferentzien atzemaketarako; bakoitzak gaien arteko hautaketa bat erabiliko gingo du dagokion gaiaren erdiepena bideratzeko. Beraz, ez da bakarrik lehenengo aipatutako bide ontologiko hori $\pi \epsilon \delta \sigma \xi \nu$ delakoa (3) uxatzeko, baizik eta ahalmenen arteko funtzio bereizketa hau ere beharrezkoa izango bait da.

Bi baldintzarak, bada, aipatutako jite harremantzailea eta diferentzien beharra alegia, sentipen bat sortzen den bakoitzean bete beharko dira baina baita ere beste ezagupen mota guztiak menperatu beharko zaizkio. Sentipena bakarrik dagokion gaia aurrean dagoenean zertzen da eta sortzen zaizkigun oztipoak bakarrik era praktikiko batetan erantzutea zilegitzen digu, baina emana areagotzen duen ezagupen batek baldintza haiek errespetatu beharko ditu gaia aurrean ez dagoela ere. Honela Aristotelesen, metafisikaren lehen liburuan, sentipenaz beste, artea eta jakituria (zientzia espekulatiboak) be-

reizten ditu. Guztiek sentipenen gaietikiko hurrinketa maila bat suposatzen dute eta ikuspegi askeago bat, denboraren eta espazioaren oraingotasunari gutxiago menperatua, baina hala ere bi baldintza hoiei menperatuak egongo dira beti.

II

HIZKUNTZARI BURUZKO GOGORAMEN OROKORRAK

Hizkuntza ez da zientzia egituretatik alde batera egongo, ezen, harremantzaile haæetaz hitz egiten duenean zuzenki aipatzen ez badu ere, horrela uæer bait daiteke Aristotelesekin, behin eta berriro, hizkuntzaren eta harremanketa ezagule bat biltzen duten ahalmenen artean kidetasun bat aldarrikatzen duenean. Hau, lehenik, hizkuntza kopuru diskretu bat eta neurri bezala (4) ezaugarritzen duenean nabarmentzen da, hauek egitura haien menpekotzat jotzen bait ditu. Hitzek errealtatearen atalak ordezkatzeko lituzkete, bai berez iraun ahal izango luketenak bai adimenaren ahalmenen baten bidez banaadiak. Kopuru diskretu bezala ezaugarritze hau errealtatearen atalekin zihurtatzeko bide bakarra da, errealtatearen gorago azaldu dudan zatikatzea onartzen bada; izan ere, kopuru jarrai batek, kopuru geometriko batek adibidez, gaiaren batasuna eta, beraz, ezaugarritasuna suntsituko luke. Bestalde, hizkuntza neurri kontsideratze hau: "logos" hitzak grekeraz hartzen duen gino edo proportzio zentzuarekin egokitzen da. Zentzu hau nabarmena da Heraklitoren erabilera batzutan: baina baita ere Aristoteles berarengan (5) diagonalaren neurri ezintasunari λόγος deritzon. Gainera, ez da guztiz premiazkoa neurrira jotzea hizkuntza eta zientzaren arteko elkarketa honetarako, aski da jotzea zientzia esakuntza bat dela dioen pasartetara, adib. 9 1046b7 non zera dioen: λόγος ἔστιν ἢ ἐπιστήμη. Honek, ezbairik gabe hizkuntza eta ezagupenaren artean egitura kidetasun bat finkatzen du eta, era berean,

bultzatzen gaitu, behin baieztapen hori gureganatuez gero, hizkuntzaren zereginaren argitze batetara.

Balio beharko ote du aipatutako bi muturren zubi bezala? ala ulertu beharko ote dugu adimen funtzioaren islada huts bezala? edo ulertu beharko ote ditugu biak banan ezitasun batean?. A. C. Lloydek (6) hitzak (utterances) eta esaldiak (sentences) alde batetik, kontzeptuak (concepts) eta proposizioak (propositions) bestetik eta gauzak (things) eta gauza egoerak (states of affairs) bestetik bereizten ditu, horrela hesparru hirukoitza bat ezarriz: gauzena, pentsamenduarena eta hitzena, azkenok pentsamendura eta pentsamenduak gauzetara joko luketelarik. Nahiz eta "De Interpretatione"-n hitzak ari-maren afekzioen sinboloak direla garbiro adierazten den nik honen interpretazio bigundu bat defendatuko dut zeren pentsamenduaren arartekotasunak ez bait du hiru mailen kateaketa bat beharuko, baizik eta aski izango bait da, zurrerago ikusiko den bezala, bi poloren harremanketa bat, zeintzuren artean lotura izendatzaile bat, "designative link" bat (7) emango den. Bikoiztasun hau defendatzeko aski izango da, oraingoz, pentsamenduaren eta dagokion gaiaren arteko loturaren arartekorik eza, horrela pentsamenduaren sinboloak ere arartekorik gabe atxeki beharko lirakeelarik.

Urrango lerro tan, bada, lan honen helburu nagusia izan nahi duen gaiaren azterketari lotuko natzaio hestukiago, hitzen esanahia-
ren arazoari alegia, baina azterketa hau ezin izango da burutu hizkuntzazko ikuspegi huts batetik begiratur, baizik eta goian aipatu-

tako heuren gauzekiko harremanetan. Zerbait esan nahi izateak (**ἵ**
-σπράσει) hizkuntzaren funtziorik oinarritzakoa aurkezten du eta
bera eman dadin lehen baldintza da. Hitzek, zeinahi mailatan hitz
egiten dugularik, berataz beste den zozertara kultzatzen gaituz-
te, bai hizkuntzazkoa ez den zozertara bai aurretik esandako hi-
tzen argigarri izango den kate batetara; hizkuntzaren funtsea, bada,
juera "bestekoi" edo iragantzailer batetan etzango da; baina ho-
nek ez du suposatzen hitzen esan nahi izate horren modu bakarra da-
goenik, esan nahi izateen berdinkatze bat; hizkuntza organismo or-
denatu eta mailakatu bat bait da eta esan nahi izate hori ere
maila edo era desberdinetan gauza daiteke. Hau kontutan izanik, esa-
nahiaren interpretazio murriztu batetan oinarrituko ^{naiz} lehenik greke-
rako **ἵσπράσειν** aditzaren etimologiatik abiatuz; grekeraz zera esan
nahi du: seinalatu, haztarnatu, erakutsi, seinaleak egin... eta baita
ere azaldu, erreferitu ... Azken adierak, behin behinean, alde ba-
tera utzirik, nabarmena da hitzak eragiketa fisiko bat adieraz-
ten diela bere funtsean; zentzu honi lotuko natzaio lehenik hizkun-
tzazko esanahiaren erarik oinarritzakoenak mugatzeko, ondoren, bere
baliagarritasuna ahitzean, eta era konplexuagoak argitzeko, aris-
totelestarragoaz aldatuko ditalarik.

III

ERAKUSLEA

Zerbaiten aurrean gaudenean egin dezakegun lehen operazio adierazkorra behatzaz erakutsi, seinalatu, izango da, Kratilok ^{egiten zuzena} gainerako komunikazio ahalbide oro ukatzen zuen bitartean. Keinu honek bere parekoa du hizkuntzean; behatzaz erakustearekin batera, edo bere ordean, objektua aipatu ahal izango dugu, hurrin ~~tsunaren~~ edo hurbiltasunaren arauera, "hau", "hori", edo "hura" hitzak izendatuz. Hitzok erakusleen gramatika kategorian barneratuko dira eta heuren eginbeharra ez da argibide bat ematea edo gaia definitzea izango, baizik eta ^{gai hori} intuizioarentzat ^{eskuartzeak} egiten dute besterik ez, den boraren eta espazioaren barruan ematen diren era hutsean hartzen direlarik kontutan. Objektua "hau" bat bezala mugatua, beraz, banako bat bezala agertuko zaigu, oraingo eta egitezko denbora eta espazio baten barruan emango delarik. Baina gaiak, erakusle bat jasotzean, ez du inolako kualifikaziorik hartu; erakusle batek ez du nolakotzen, baizik eta bere baitan gainerako objektu guztien artean bereizten den, batasun diskretu ez nolakotu bat bezala atzematen den, zerbait egiaztatzen du.

Aristotelesek harrera handia emango dio era banandue tan agertzen den mundu enpirikoarekiko lehen lotura mailari, eta -708ε τi expresioa kudeatuko du mundu sentigarriaren agerpen banakoak izendatzeko.

Alabaina, operazio "hau ez tatzaille" hori aztertzen badugu pit-

tin bat, gure behatzaren higiketari edo partikula erakusleari dago-
 kion gaia zein den zehaztsak, uste baino zailtasun handiagoa duenaz
 ohartuko gara. Badirudi ez dagoela zailtasun handirik mahai bat edo
 Sokrates seinalatzean zeri gagozkion jakiteko, bi kasuetan sentime-
 nek zuzenki hautematen duten gorputzak haueztatzen bait ditugu eta
 zehazki muga ditzakegu hoiak zeozar banagarria, batasun diskretu
 bat, egiten duten zedeak; baina hau problematikoagoa izango da sei-
 nala nahi duguna gauza egoera konplexu bat baldin bada, kopjuru dis-
 kretu edo eten bat ^(ez dena) alegia: amildegi bat edo eklipse bat adib., ze-
 ren amildegieren ertzer iristean geldituko garen arren edo ilargia
 gauaren une batean zati batean edo erabat ilunduko den arren, ez
 bait dugu jakingo keinuaren bidez, edo erakusle bat^{en} erabileraren
 bidez, malda, barrena edo gure surrean agertzen den hutsondoa adie-
 razten dugun; edota ilargia ala argirik eza ala ... Azkenok agerka-
 riak, fenomenuak edo sentimeneen gaiak, izango dira baina kopuruz
 batasun bat osatzen ez ditenez, agerkari konplexuak izango direnez,
 erakuslearen izendaketa^k/anbiguitasunean murgilduta iraungo du. Ara-
 zo hau Aristotelesek erakusten duen "tode ti" esapidearen erabile-
 ra anbiguoan isladatzen da, bai ekaia bai era bai bien arteko kon-
 posatua bere erreferentzia bezala agertuko direlarik testuetan.

Horrela, "Kategoria" tratatuan, izatasun ($\alpha\upsilon\tau\acute{\alpha}\nu\tau\alpha$) bi mota
 bereizten direnean, lehen izatasuna (α) izango da "tode ti"-tzat jo-
 ko dena, berak birraurkeztuko bait du izatearen lehen gauzatze ba-
nandua, zatiezina ($\alpha\iota\omicron\mu\omicron\nu$) eta kopuruz bat ($\epsilon\nu\ \alpha\epsilon\iota\theta\acute{\alpha}\nu$) (β) izan-

go litzatekeen neurrian, Honekin "tode ti"-tzat har daitekeenaren ezaugarri nagusienetako bat finkatzen da: batasun eta zatiezintasun atributuetan oinarriturik, beharrezko banangarritasuna baieztatzen da, beste inon ukatuko ez den askapena. Baina oraindik beste bigarren ezaugarri bat ere azalduko zaigu testu honetan lehen izatasunaren eta bigarren izatasunaren artean egiten duen bereizketaren arauera. Bereizketa hau, eta batez ere orokorrak izatasun kontsideratze hau, azterketa logiko baten emaitzatzat jo daiteke, biek hizkuntzean sujetu bezala joka dezekete eta; baina, bestalde, lehenengo eta bigarren izatasunen arteko bereizketa hau izaera mugatuaren, edo sujetu hutsaren, eta izaera nolakotzailearen, edo sujetu batetaz esan daitekeenaren, arteko bereizketaren pareko izango da. "Tode ti"-a, beraz, beti sujetu eta inoiz ere ez predikatu izango dena da.

Kategorietako bi izatasunen arteko bereizketa hau, dena dela, ez da mantenduko, hitzotan behintzat, "Metafisikan". Z liburuan ekaiia eta araren arteko bereizketa sartzen da izatasun sentigarriaren osagarri bezala, horrela erakuslearen erreferentzia puntuaren zehazpenerako bi aldagarri berri sartuz. Ekaiari dagokionez, eraz banadurik gogarturik, badirudi ez dagoela inolako zalantzarik "hau zerau" izateko hautagaien artean arbuiaitzeko, zeren han edo hemen izatasuntzat eta "tode ti"-tzat jotzen bada ere honako bi arguentuok kontrajarriko zaizkio: 1) ikuspegi ontologiko batetik ekaiaren mugaezintasuna; ekaiak, berez, mugagabetasun mailarik gorenena birraurkezten du, ez bait dago bere baitan ezar banadurik eraz

hornitua ez bada. 2) Eta ezagutze prozasuen ikuspegitik era zera ikus dezakegu; dagoeneko mailarik oinarritzokoenan ere, ezagupen sentigarriari dagokionean hain zuzen, ekaiatz abstrakzioa egiten dela, ezen sentigarria beti ekaizko osagarri batetatzen osatua baldin badago ere (10), ez bait da ekaia bera sentigai bihurtzen duena, era baizik; Aristotelesen hitzetan:

"Sentimena era sentigarriak, ekairik gabe, jasotzeko ahalmena da" (11).

"Metafisikan" bertan . . . beste bi ahalbide agertuko dira oraindik "hau zerau"-tzat jo daitezkeenak: era hutsa eta era eta ekaiaren konposatua. Aristotelesek bere testuatan iritzi kontrar-saleak azaltzen ditu honetaz, leku batzutan era dela "tode ti" bait dio eta beste batzutan, berriz, konposatuaz mintzatzen da. Z11, 1037a1-n Aristotelesek argiro aldarrikatzen du ekaia eta, beraz, konposatua, dela "tode ti"-a:

"ez zertasuna (ti en einai) eta ezta ere berez berez eta bere baitarekiko espeziea (eidos) baizik eta hau zerau (tode ti) denek ekaiatu du."

Honela gaia era batez hornitua baina ekaiaren menpeko eta, beraz, banandua agertuko zaigu. Berarekiko ezagupena ezin izango

da eman bera aurrean dagoenean baino, zertasunaren eta espeziearen, alde batetik eta egite konkretuaren, bestetik, kontrajartzea sortzen delarik. Kontrajartze hau, dagoeneko, Z10, 1036a1 eta ur.-n platea-
ezagupen bat
 tu da eta banako konkretuaren (του συνόλου) — bai ezagupen noeti-
 ko bat bezala, ekaia adigarria denean (matematikaren irud. birraur-
 keztuek adib.), bai sentipenezko ezagupen bezala (brontzezko esfe-
 ra) emango litzatekeena — eta izatasunen ezagupen bat — aurrean
 egote hori areagotu eta ihardunaren hesparruan eman beharko litzate-
 keena — kontrajarriz erabaki da.

Hala ere, esan didan bezala, era ere, ekaigabetua, zerozer mu-
 gatutzat jotzen du Aristotelesek, honela "tode ti"-a banakearekin
 eta aurreihardunekoarekin identifikatzea auzitan jartzen dela iru-
 dituko lukeelarik. Δ8, 1017b25 eta Z3, 1029a27-n era* hau zerau" eta
 banagarria (χωριστόν) kontsideratzearen alde agertzen da; berri-
 ro ere banagarritasuna eta mugagarritasuna elkartuta agertzen dira,
 baina lehenxeago aipatu didan H liburuko zatitxoan banagarritasun
 hau esakuntzaren arauera (ἡ ἀρχὴ χωριστόν) gertatzen dela zehaz-
 ten du. Era hutsaren banagarritasuna, bada, hizkuntzako hesparruan
 emango litzateke, nolabait Z liburuan izendatzen zaion jite intui-
 tiboia, noetikoa, kontzaesango lukeena.

Arriskugarria da beti, eta hau leku komun bat da (12), Aris-
 totelesek erabiltzen dituen zenbait ^{hitz} teknikoren interpretazio
 bakar bat ematen saiatzea, terminologia aldakorra erabiltzen du
 eta hitzek ez diote testu guztietan esanahi bakar bati erantzuten;

beraz, "tode ti"-ari dagokionean arazo hori alde batera utzita, zera esan dezakegu: expresio honek banakoa eta konkretua adierazteko modu bat izan nahi duela, hau da, era intuitiboan eta zuzenki batasun bat bezala atzematen dena; batasun hau izatearen lehen expresioa izango litzateke, eta ez du arazo bereziki larria izan beharrik bere erabileraren zentzu aldatze horrek kontutan hartzen badugu, konposatuari dagokionean, ez dela inoiz ere ez bera zaozer mugatua dela auzitan jartzen, eta, kasu honetan ere, era, eta ez akasia edo konposatua, izango da atzemango duguna, eta era hori une zehatz batetan atzemandako mundu intuitiboaren egite bat bezala gogartzen da. Hau argiroago ulertu ahal izango da kontutan hartzen bada Aristotelesen zat banagarritasuna beti egitezkoatasunari lotuta doakio- la eta aurrean ez dagoenaren era, gure birreurkezpena, egitezko erre- alitate bati dagokiola. (Hau aurrerago egiten den $\tau\acute{\iota}\ \kappa\upsilon\ \epsilon\acute{\iota}\nu\alpha\iota$ aren azterketarekin argi daiteke).

Nolanahi ere, Aristotelesek banakoaren definigarritasuna erre- fusatzen duela gogotan hartzen badugu, lehen mugapen honi ezbairik gabe jite aurreihardunkari bat atxekitzera behartuak gaude. Honek, jakina, banandua hizkuntzazko hesparrutik at geratzea lekarke, eta, azken batean, banakoaren ezagupenaren eta pentsamendu ihardunkaria- ren arteko aporia plateatuko luke edo, beste hitz batzutan esanda, bakarrik orokorraren zientzia eta definizioa dagoela dioen baieztar- pena eta bakarrik banakoaren benetazko ezagupena dugula dioena kon- tra-jartzearen arazoa.

Edonola "tode ti"-ak jitsu ontologikoa hartzen du baina eza-
 gupenaren lehen eduki bezala agestuko zaigu. ^{Tode ti-a} izatea eduki den hei-
nekoaren lehen mugapena (inhaltliche bestimmung (13)) izango da,
nahiz eta ez den oraindik, aurreihardunkari denez, zientziaren gai
izango.

IV

ERAKUSLEA ETA IZENA

Hizkuntza, lehenago ikusi dugun bezala, beti orokorketa bat biltzen duten hitzez osatua dago. Hitz baten erabilerak, gaitasunean behintzat, berak birraurkezten dituen gauza edo ideia multzo batekiko erreferentzia biltzen du. Esanahiaz hitzegitean ikusi dugu hitz bera beste hitz batzuren bidezko azalpen bat bezala uler zitekeela edota, bestela, hitzak birraurkeztu nahi duen gaia erdiesteko bidea bezala. Bakarrik lehenengo ahalbidea behatuko bagenu izen baten esanahia orokorragoak izango liratekeen beste hitz batzutan adieraziko litzateke eta hitz berri hoiak, era berean, beste hitz batzutan emango litzatekeen esanahia izango lukete. Baina halako kate batetan iraungo bagenu, beti esanahi berritara jotzen duten hitz kateaketatan alegia, iraganketa hori hizkuntzaren hesparruan emango litzateke besterik ez, eta ez litzateke gauzataruntzako iraganketarik egongo, ez litzateke hitzen atetiko gauzen birraurkezpenik egongo. Horrela bada, ezinbestekoa da hitzek birraurkeztuarekin zubi bat osa ditzaten, honela bere edukia eskuratuz.

Aurrera jarraitu aurretik merezi du hemen, gaingiroki besterik ez bada, ideien eta gauzen arteko kontrajartze hori aztertzea. Bata edo bestea pentsamenduaren eduki egitearen aukeratik bi joera sortzen dira greziar filosofian, Platonengan, alde batetik, eta Aristotelesengan, bestetik, dutanak ^{heuren} ordezkariarik nagusienak. Egia da izan lehena hizkuntzarekiko erdeinatsu azaltzen dela eta

bere ideiak heuren esanahigarritasuna heuren baitan ahitzen duten izakiak bihurtzen dituela, pentsamenduren eta gauzen arteko arartakotasun oro ukatuz. Platonentzat ezinezkoa izango litzateke hitzen orokortasuna eta ideien banakotasuna elkartzea. Aristotelesek, os-tera, beregagutzen du hizkuntzaren orokortzaile izate hori, baina, ez gogazko izakiekin baizik eta errealtatearekin, hau gure sentipenen bidez atzemana bezala gogarturik, elkartu nahi du, hau da, hizkuntzaren orokortzailetasun hori erreibindikatzuz baina orokorra, nola edo hala banakoan emaja bezala bururatuz, eta ez banako bihurtuz, hizkuntza horrela benetako eduki batetat hornituz. Dena dela hau aurrerago ikutiko dudan gaia denez horrela utziko dugu.

Beraz, hau kontutan izanik berriro argudiapenaren hildoa hartuko genuke ondoko galdera proposatuaz: nola elkar liteke aurreko atalean aipatzen genuen ezagupenari dagokion eduki hori ("tode ti"-a) izenarekin kontutan izanik lehena kopuruz batasun bat, banako bat, den bitartean izena adierazten dituen gauza guztiei atxekitzen zaiela?

Erakusleak, noski, esanahi bat du, baina esanahi honek zuzenki "eramaile" "bearer" (14), batetara jotzen du, izenaren esanahiak, berriz, halako eramailerik behar ez duen artean; izan ere, honek erakusle baten bidez adibidetua edo azaldua, "explained" (14), izan daitekeen erreferentzia batetara, adimenezko erreferentzia batetara, jotzen du; hemen letzake izenen eta erakusleen arteko aldea.

Orain arte esanahiaren adiera murriztu bat erabili dut, esa-

pide mota batek gauzekiko duen lotura ezaugarritzeko balio izan di-
dana, baina halako murrizketa bat desagokoa izango zaigu aipatuta-
ko zehazpena sartu eta gero, esanahiaren bidefinitze bat beharrez-
koa izango zaigularik, baina orain Aristotelesen testuetan oinarri-
tua izan behariko duena:

"Gauza bat esan nahi izatea zerari deritzot: "gizon" <adie-
razpen> hau baldin bada, eta zerozer gizon baldin bada, <adieraz-
pen> hau gizonaren zertasura izango da." (15)

Aipagarriak deritzedan hiru puntu azpimarratuko ditut defi-
nizio honetan: lehenik nabarmendu behar da Aristotelesek ez dihar-
duela esan nahi izate hutsaz, gauza bakar bat (ἐν σημαίνειν) esan
nahi izateaz baizik; hitzen unibozidatea beharrezko baldintza da
komunikazioa sortu nahi dugunean, bai solaskide batekin denean bai
barne solas bat denean. "Esan nahi" izate oro (eta gogorerazi behar
da Aristotelesek hizkuntzari buruz duen iritzi konbentzionalista)
gauza bakar bat eta ez askotasun bat esan nahi izateari murriztuko
zaio, zeren, nahiz eta hitz bat
zenbait esanahirekin erabili ahal izango dugun, berataz baliatzen
garen bakoitzean esanahizko mugapen bakar bat aukeratu behar
bait dugu.

Sigarrenik esanahia osatzeko hiru osagarrien bereizketa na-
barmendu behar da: izena, "gizon"; bere adierazpena, "bi hankadun

animalia" adib., eta hoiel dagokien gaia, azaltzen ("explain") dituen gaia. Izenaren esanahia hitzetan azaltzen da, baina honek ez du esan nahi arazoa hizkuntzazko esapide bakun batetatik beste konplexuago batetara irageiten denik besterik ez, zeren esanahiak hitzetan adierazten badira ere ez dute gauza bera adierazten; izenek sorta bat biltzen dute baina sorta horretako partaide izan daitezkeen ezaugarriak kontutan hartu gabe eta, oraindik, beraz, edukirik gabe; esanahiaren zehazpenak, berriz, objektuak sorta horren partaide izateko behar dituen ezaugarriak adierazten ditu. Definizioak, horrela, adierazten dituen mugapenen bidez, gauzekiko harremanketa funtsatuko du eta esanahia bakarrik harremanketa hori ematen den neurrian zertuko da; definizioak gauzaren "ti en einai"-a izango du erreferentzia bezala, hau da, era eta honen bidez emango da "explain" edo azaltze hura.

Hirugarrenik definizio honen testuingurua aztertzea komeniko litzateke. Aristotalesek, bere "lehen hastapena" azaldu ondoren eta bere frogatzeko ezintasuna aitortuta, bere kontraesaleak ukapenezko bidetik errefusatzeari ekiten dio, hau da, hastapenaren ukatzeari lerraiokoen zenbait zailtasun azalduz. Horretarako zazpi frogapen ezberdin ezartzen ditu, hauekako lehena komunikazioa zilegituko luketen baldintzen azterketa batetan oinarrituko litzatekeelarik. Errefusapen honek komunikazioa esanahian oinarritzen deneko egiaztapena hartuko du abiapuntu bezala eta, halaber, esanahi hori hitzen unibozidadearen hastapena errespetatuz bakarrik

zilagi izatean; ezin izango dugu hitz bat ebakitzean bi gauza esan nahi az badagu komunikazio bide oro hautsi nahi.

Marku honetan, beraz, ulertu beharko litzateke izenaren esanahia eta ez "tode ti"-ari zegokion "eremaileari" menperaturik.

"Tode ti"-ak banakoa seinelatzen zuen baina bere baitan inolako bereizketarik sartu gabe, nahasi bezala, "hen arithmo" kopuruz bat zen; izenak bereganatuko du, osteraz, hizkuntzaren eta logikaren arloan, bakunaren papera, kopuruzko bat^asunaren aurrean esanahi batasun bat, "hen semainein", ezarriko da; izenak izango dira errealitatearen zati bakunekin bateratuko diren hizkuntzaren zati bakunak.

V

GAUZA ETA BERE MUGAKETA

Behin bereizketa hau ezarrita gauzen eta hizkuntzaren arteko loturaren zehazpen batzu ematea komeni da. Lotura honen lehen urratsa lokuzio galdegile baten bidez ematen da 71² 86 71. Galdera honek gaia bere denborazkotasunetik aterako du, berataz beharrezko bezala adieraz daitekeena bilatuz eta, beraz, bere aurrean egote hutsa, bere banakotasuna, areagotzea zilegiko diguna. Honek hizkuntzako egituretara asimilatzea biltzen du eta, horrela, agertzen denaren banakotasunetik iraunkorra eta egonkorra bihurtzen duten mugapenak bilatzera iragaitea, alegia, izatasuna bilatzera behartzen du. Hau bere baitan orokorra dena eta, gaitasun~~ean~~, ezaugarri bereko beste gai batzurekin elkargarria egiten duena zehaztuz izango zaigu ahalezko.

Honi jarraituz, eta aurrean azaldu den ideia batekin lotuz, zera esan dezakegu: izenda daitekeen zeozer beti era orokor batean gogartzen dela eta sorta baten partaide^{dela} Sorta horri dagokionean berdin izango da zenbait partaide izango dituen, nahiko izango da partaide bakar batekin, nahiz eta zehaztu behar den definizioa. ez zaiola banako horri zuzenki atxekiko, banakoaz ez bait dago definiziorik, baizik eta erari, edo partaide horri, orokorki gogaturik. Zentzu honetan ulertuko nuke Aristotelesen logika eduki logika bat bezala, bere kontzeptuetan sorta hutsa ezinezkoa izango litzateke-
elarik.

Nolabait lokuzio horrekin nahastuta Aristoteletar testuetan beste esapide galdegile bat aurkituko dugu "τί ἔστιν ^{delakoa} ἡ ἀλγία". Ez du merezi orain bien arteko aldeak jorratzen larregi saiatzea, eta lan honetarako baliozko izango zaizkidan batzu aipatu besterik ez dut egingo. Nabarmendu behar da lehenik bi esapideek gaia behatzen dutela; zer da hau? galderaren bidez itzuliko liratekeelarik, baina galdera izenari buruzkoa izango litzateke, goraxeago zehaztutako izen edukitzaileari buruzkoa.

Baina biek mugaketa maila desberdina adieraziko dute. "Ti esti"-a zenbait lekutan "ousia" hitzaren ordean agertzen da Aristotelesekin ematen dituen kategorien zerrendatan, honela bi kontzeptuen berdinkaketa bat sortuz, eta, beraz, izatasunari dagozkion bai erazko bai ekaizko mugapenen menpeko bihurtuz. "Ti esti"-ari erantzunak izatasunaren zentzu orokorra adierazi beharko du sujetuan emango diren ez izatasunezko mugapenekiko ahierga izango delarik. "Ti esti"-ak gaia, Sokrates adib., barneratzen den orokortasun maila gorena emango du. Gauza bati buruzko "ti esti" galderaren erantzunak kasu guztiak barneratzen ditu: "irudi geometriko" diogunean "ti esti" galdera bati erantzuteko bai triangelua bai zirkulua bai lerroa eta baita ere brontzezko edo egurrezko zirkulua biltzen ditugu erantzun horretan, eta, halaber, "animalia" diogunean edozein animaliarri gagozkio.

"Ti en einai"-ak, ordea, izatasuntzat jotzen den arren, ez du izatasuna orokortasun horretan azaltzen, baizik eta bere zati

mugatuago bati zuzentzen zaio. "Ti esti"-ari, zer izanari, erantzu-
 nak are ekaizko mugapenak ere biltzen dituenaz, ez du zenbait muga-
 pen bazterreratuko, adib, kolorea gizonarengan; baina "ti en einai"-
 ak, zertasuk, gizonaren edo zirkuluaren izatasuneko ezaugarri
 guztiak ahitzen ditu, ^{gaia} izatasunean mugatzen ez duten akzidenteaak
 alde batera utziz. Zalantzarik ^{gabe} zirkulua definitzeko "geometri era"
 bezala ezaugarritu beharko dugu lehenik, bere zer izanaren bidez,
 baina gainera, triangeluez edota brontzezko zirkuluaz bereizteko
 beste zehazpen batzu eman beharko ditugu, bera beste izatasun guz-
 tietaz bereizi arte.

"Ti en einai" esapideari dagokionean zera esan dezakegu:
 esapide konplexu bat da, bi osagarritan deskonposa daitekeena; izan
 aditzaren infinitibo nominalizatua, "to einai", eta izan aditzaren
 iragan ez burutuaren 3. pertsona partikula galdegileaz lagundua,
 "ti en". Aristotelesek, zenbait aldiz, inarduna aipatzen den geuzar-
 ren aurrean egoteaz abstrakzio eginda funtsatzeko premia azaltzen
 du. Honak ez du esan nahi sentipenen gaia erdeinatzen duenik, bai-
 zik eta, haatik, sentigarrian hartzen du bere abiapuntua baina be-
 re aurrean egotea areagotzeko eta gurea aurrean ez dagoenean ere
 aipatu ahal izateko. Horrela bada edozer geuzatuz hitz egite orok
nolabait hitz egite gibelatua izan beharko du, edo, denboratik at,
 bere legitimapena gaia sentipenei agertu zaion iraganeko denbora
 batsan aurkitzen duena. Objeto batetaz hitz egite orok bere
 lehenagoko presentzia bat behar hori izan daiteke "ti en" = zen zera

delakoa iragana izatearen arrazoiak (16).

Esan dugunetik bi puntu nagarmen erazi ditzakegu zertasu-
ren ezaugarri bezala: bere hizkuntzazko jitea, izenaz galdera bat
izatea, eta bere gauzarekiko lotura. Hemen Gamma liburuko esanahia-
ren definizioa aztertzean azpimarratu dudan bikoiztasuna birrekoiz-
ten da. Honen jatorria hizkuntzako azterketaren eta izatezko azter-
ketaren arten sartzen duen bereizketan bilatu beharko litzateke. Be-
reizketa honek ez dakar bi hesparruon bakarkako tratamendu bat be-
hartuko lukeen haustura bat eta, h alaber, ez da bururagarria azter-
keta logikoaren lehentasun bat, baizik eta azterketa ontologikoaren
lehentasuna ezartzen da. Aurrekotasun hau kategorien sailkapenean
azaltzen da, gauzen eta ez hitzen sailkapena dena (17). Hala ere A-
ristoteles izatasunaren bikoizketa batetara behartua ikusten da:
kategorietan lehena ^{izatasuna-} bai izatearen bai esatearen hesparrura projek-
tatu, bait da. Zertasunak, bada, arrazoimenaren ikuspegitiko (18)
izatasunaren murrizketa bat izan behar du. Arrazoimenari edo hizkun-
tzari murrizte honetan gaiaren izatasunezko edukiak jasoko dira eta
berataz berez (καθ' αὐτό) esaten denari dagokionez, tartegabeko
erreferentzia bat isladatuko du. Tartegabekotasun hau objetuaren
eraren bidez burutuko da; era izango bait da zertasunaren korrela-
toa eta nolabait berarekin berberatuko da.

Era eta zertasunaren arteko berberaketa ^k azken hau ezaugarri-
tzeko, izatasunean bigarren murrizketa sartzea zilegituko digu; ³ zer-
tasuna ekairik gabeko izatasuna bezala definituko bait da. Ekaiare-
kiko abstrakzio honek ez du suposatzen, dena dela, banakotasunare-
kin eten bat, izan ere zertasunak, nolabait, beheraruntzko itzulua
(19)

bideratuko bait du, zer izanarekin emandako jauzi orokortzailearen ondoren, orokor hori bere azken diferentziaz mugatuz. Zer izanaren galderari generoarekin erantzutea aski bada, zertasunaren erantzunak, generoa aurreuposatzen duen arren, ahitzailea izan behar du, eta, hortaz, banakoa erdietsi behar du, nahiz eta honek ez duen esan nahi objektua orainean existitzen denik baina bai noizbait atze man dela. Zer izana, orduan, generoaren bidez adieraziko da, "definizioaren elementuen osotasun bateratua" (20)-ren markoa emango duena. Adibide bat emanaz lerroa zer izan bezala bai lerro zuzenari bai bihurrari dagokiolara, ^{esan dezakegu} lerro zuzenaren zertasuna eskaini nahi dugunean, ^abarriz, lerrotasunaren markoan, banaturik buraratzeari zilegitzen digun ezaugarri multzoa adierazi beharko dugularik.

VI

ESANAHIA: ETA ZIOA

Beharrezkoa da orain berriro esanahiaren arazoa planteatzea baina aurreko atalean aztertutako kontzeptuekin lotuz. Honetarako ^{bi}Gamma liburuko definizioa birrartuko dut eta kontzeptu hoietan oinarriturik bere zentzuaz argibide batzu ematen saiatuko naiz. Honetarako, gainera, Z 17-ko (Z liburua^{ren} ondorio gisako kontsidera daitekeena) eta Bigarren Analitikoetako pasarte batzuz ere baliatuko naizelarik. Hauetatik lehena Z 17, 1041b4-5 izango da, aipatutako definizioarekin duen parekotasuna kontutan izanik batik bat:

"Eta gauza ematen dela jakin behar denez, nabarmena da ekaiatz galdegiten dela zergatik den zerbait; adibidez, ekaiok zergatik dira etxe bat?; heurretan etxearen zertasuna ematen delako."

Esanahia definitzean logosaren eta gauzaren artean nolabait teko eten bat ezartzen zen ^{eta} eten honekin batera beste bereizketa bat agertzen zen: hitz baten adimenezko erreferentziaren (hizkuntzaren konbentzioaren barruan mantenduz hiztuna nahiz solaskidea gogoaren afekzio berdinerara igortzea zilegiko lukeena) eta hitz horri dagokion substratoaren ("bearer") arteko bereizketa. Bereizketa honetan oinarriturik hitz baten izenezko esanahia eta benetazko esanahia bereizi ahal izango genituzke. Lehenari dagokionez berak eskatzen duen egiaztapen bakarra konbentzio hutsaren arloan emango da;

hitz batek hizkuntzean egiten den bere erabilerak izendatzen dion izenezko esanahia du eta ez dio eraginik egiten objektu egoki baten existentziak. Adibidez, "aker-orein bat ($\tau\epsilon\alpha\gamma\acute{\epsilon}\lambda\alpha\epsilon\omicron\sigma$)⁽²¹⁾ izenda dezakegu, nahiz eta halakorik ez dela existitzen eta ez dela inoiz existitu seguru gauden, fantasma bat edo gure irudimenaren sorrari soila besterik ez dela jakin gurren. Sortze hau pentsamenduak duen bere kontzeptuak, errealtatea kojitutan hartu gabe, nahasteko ahalmenaren ondorio da, bide honetatik pentsamendu hutsaren mugapen izendagarriak eta hizkuntzaren tresnerian barneragarriak sortu ahal izango direlarik. Halako definizio bat ezin izango da, hala ere, benetazko definiziotzat hartu, zeren edukirik gabeko pentsamenduaren mugapen baten aipamena izango bait da, edo, bestela esanda, sorta huts baten definizioa izango bait da eta hau hizkuntzaren jite orokortzaileareⁿ aurka joango litzateke, orokorketa orok bera atxekiko zaion gai baten premia bait du.

Dena dela, aipatzen dihardudan esanahiaren definizioan ez da bakarrik delako eten hori ezartzen, baizik eta izenezko esanahirik benetazkorako iraganketaren baldintza ere eskaintzen da. Gizon definitzean "<adierazpen> hau" dela esaten digu, "X" (eman dezagun hankabidun animalia); "X" hau gizonen definizioa da, norbaitek izen hori aipatzen duenean gure barnean ulertzen duguna da; baina era berean izen hori atxekitzen zaion gai orok bete behar duen baldintza da.

Baldintza hau aipatutako bai³Gamma⁴liburuko bai Z liburuko

testuetan τὸ dat. εἶναι gramatikazko eraren bidez adierazten da:
 . τὸ ἀνθρώπῳ εἶναι lehenengo kasuan eta ὅ ἢν οἰκίᾳ εἶναι
 bigarrenean, eta beste zengait testuetan ere sarritan erabiliko du
 Aristotelesek esapide hau zerbaiten zertasuna edo "ti en einai"-a
 adierazteko. "Ti en einai" galdera galdera logiko bat da, izenaz
 galdera bat da, baina hala gai horren mugapen bezala nola gai hori
 esanahiaren ordenuan sartzearen baldintza bezala agertzen zaigu eta
 honela benetazko definizio bati eman behar zaion zentzua zehazten
da. Nabarmendu behar da Aristotelesentzat bakarrik halako mugapen
 bat ematen denean hitz egin daitekeela esanahiaz bere zentzu osoan.
Bakarrik definizioa objektu banakoa konbentzionalki "X" izenarekin
birraurkezten den sorta batean barkeratzearen baldintza bezala uler-
tzen denean hitz egin ahal izango dugu benetazko definizioaz eta
hizkuntzaren gauzekiko projekzioaz, hau da, konbentzioa gainditzeaz.
 Bai zer izanak bai zertasunak, orduan, benetazko definizioari joan
 behar diete, zeren izenaz galderak bailiren ulertu behar badira ere,
 dagozkien erantzunak izena eta errealtatea batzearen baldintza
 agertzen duten neurrian bait dira.

Gamma liburuan esanahiaren definizioa ematean azaldu tako be-
 reizketan hitza eta esanahia errealtateari oposatuak agertzen di-
 ra errealtate hau "ti" partikularen bidez adierazia agertzen zai-
 gularik; "ti" hau gai baten, objektu baten, ordean ("stands for an ob-
 ject" (22)) erabiltzen diren hizkuntzako expresiotako bat izango
da; expresio hauek, ikusi dugun bezala, gauzateriarekiko harreman-

keta zuzen bat biltzen dute edo, beste hitz batzutan, ekaiaz osaturiko gauzen ordezkatzeko bat dira. Gauzaok, bai ekai adigarriaz bai sentigarriaz osaturikoak, "zerbait" partikularen bidez ere adieraz daitezke eta "zerbait etxea da", "zerbait gizona da", "zerbait zirkulua da" erako predikazioak osatzeko behar den sujetuaren erreferentzia emango dute. "Zerbait" hori, "ti"-a, Aristotelesen testuan, "etxe", "gizon", "zirkulu" direlako hitzen esanahiaren gai bihurturiko da, emana adieraziko duelarik eta esanahiak adierazitako ezaugarriak jaso beharko dituelarik. "Zerbait" delakoarekin sujetu izan daitezkeen gai guztien bateraketa funtzional bat egin, ^{da} gauzaterian "zerbait" diren gauzak bat egin dira, baina hitzen esanahia finkatzeko "zerbait" hoiien artean, hitz bakoitzaren esanahiaren arauera, gaien bereizketa birsartu beharko da; "zerbait" izatea funtzio bat da, esanahiaren eduki diren gauza guztiei dagokien funtzioa baina honenk ez du heuren izatean batasun bat sartzen; "zerbait" diren gauza guztien artean izateko bereizketa ezarri beharko da. Baina "Gamma" liburuko esanahiaren definizioan ez da zehazten nola edozeintzutan zehazten den hitzen esanahia edo zertasuna gailan "zerbait" hoiien artean bereizketa ezartzeko, hau da, nola ematen den hitzen konbentziotik gauzataruntzko iraganketa. Iraganketa hau eman dadin bi urrats bete beharko dira:

1) Esanahian izatasuna adieraztea. Hau "Gamma" liburuko esanahia definitzen den identitate hastapenaren lehen frogapen berean azaltzen da. (23) Lehenengo urrats hori oinarritzeko argudiapenak

"zerbait X da" egitura gramatikalaren azterketa bat hartzen du abiapuntu bezala, "X" horretan "zerbaiti buruz esan nahi izan" eta "gauza bat esan nahi izan"-en artean bereiziz, "Zerbait X da" egituraren gramatika azterketa huts bat egingo bagenu "X" horretan sartu dugun bereizketa suntsituko litzateke eta "zerbait gizona da" eta "zerbait zuria da" predikazioen berdinkatze bat sortuko litzateke; beraz "gizon" eta "zuri" maila berdinean jarriko bagenitu sujetua, "zerbait" delako hori, berdin "gizon" eta "zuri" izango litzateke elarik predikazio guztiak bat eginaz eta sujetu bera ezabatuz; sujetua "gizon" balitz gizona "gizon" eta "zuri" izango litzateke maila berdinean eta, beraz, "zuri" den heinean, "ez gizon" ere. Izan ere, hemen "gizon" "zuri" eta "ez gizon" atributu bezala kontsideratuko lirateke, zerbaiti buruz esaten den geozer bezala predikatu nominalaren eta atributuaren artean nahasketa sortuz, adjetiboaren eta izenaren artean alegia.

"Baina arazoa ez da jakitea gauza bat izan daitekeen ala izan ez daitekeen gizon izenaren arauera, baizik eta gauzaren arauera." (24)

Eta hau hitzen esanahia, eta ez hitzen funtzio gramatikala bakarrik, aztertuz jakingo dugu. Hizkuntzazko azterketaren ondorioz "gizona ez gizona da" moduko baieztapenera ailega gintezke, "gizon"-i "ez gizon"-en definizioa atxekiz, sujetutasun oro ukatuz eta dena

akzidente bihurtuz, baina izatezko azterketa batek, hau da, "gizon"-en definizioari dagozkion gaien azterketa batek, sujetutasun hori birrezartzeraz eramango gaitu. "Zerbait gizona da" diogunean ez dugar dugu "gai horri buruz zerbait esaten", haatik, gai hori batasun bezala tajutzen duten baldintzak ematen ari gara "gizon"-en definizioa atzekiz; "gizon" bezala izendatzen dugu eta, era batera, gizonen definizioa atxekitzen diogu; "gizon" izango den "zerbait" oro "gizon"-en definizioari egokituko zaio, "gizon"-en zertasuna jasoko du eta ez zaio beste ezekin definitu edo zertasuni egokituko. Honela "gizon"-en definizioari dagozkion "zerbait" guzti hoietan batasun bat ezarriko da, zertasun batasun bat, beste definizio guztien aurrean bereiziko dituen. Zerbait izendatzen duen hitzak gauza bera eta ez beste ezer adierazten du, hau da, bere definizioaren eramailea, eta hau gauzaren izatasuna da eta ez akzidente bat izango da.

2) Izatasuna zio bezala gogartu behar da. "Big. An."-etan (II,1) ezagupenaren gaien zerrenda $\delta\tau\iota, \delta\iota\delta\tau\iota$ nola $\epsilon\iota \acute{\epsilon}\delta\tau\iota$ eta $\tau\iota \acute{\epsilon}\delta\tau\iota\upsilon$ galderek osatzen dute. Zerrenda honetan, gaiak binaka hartuz, bi sailkatze mota egin daitezke: lehena izenezko edo ikuspegi logiko baten eta izatezko ikuspegi baten arteko bereizketaren arauera egingo litzateke, alde batean "ei esti" eta "ti esti" gaiak bilduz eta bestean "hoti" eta "dioti", eta bigarrena, hemen garrantzitsuagoa, gaia eta zioaren arteko bereizketaren arauera, "ei esti" eta "hoti" alde batetik eta "ti esti" eta "dioti" bestetik bereiziz. Zioari dagozkionez, eta berari buruzko ikerketa kontutan izanik, hau bi elemen-

turen arteko nahasketari buruzko galdera bat bezala egituratuko litzateke, tankerako gai oro "zergatik A da B?" hizkuntza eskemaren bidez adieraziko litzatekeelarik. Zergatiak ez ditu gauza isolatuak ikertzen, baizik eta zeozer beste zeozeren baitan ematen diren kasuak eta atributu bat bere sujetuari egokitzearen arrazoa bilatzen du; halako galdera orok beti "zer"-a aurremantzat jotzen du, "A B da" aurreuposatzen du, egitura predikatzaila alegia, eta, beraz, gai horretan nahasketa hori ematea. Hau "hoti"-tzat jotzen diren gaietan, nahasketa hori jasaten duten ^{nabarmena da,} gaietan, eta "ilargia eklipsatua dago" esatean ez gendake inolako eragozpenik izango esaldi hau goiko eskema galdegilera murrizteko eta halaber erantzuna emateko. Baina izatasunean ezin da halako bereizketarik bilatu, izan ere, bereizketa horren ukatzaile bezala azaldu zaigu esanahiaren erreferentzia bide bezala tajutu dugunean, izatasunak bakuntasuna birraurkezten du eta berari buruz galdegiten dugunean bere bakuntasunari begiratzen diogu; emana hemen ez da konposatu bat bakun bat baizik eta berari buruzko galdera ikertzailea "ti esti" izango da: "gizona zer da?", ez "dioti", eta galdera horri erantzuna definizioa izango da.

"Ti esti" galderak bakuntasunari begiratzen dio, bere erantzuna $\delta\eta\lambda\omega\sigma\ \alpha\acute{\epsilon}\rho\iota\sigma\theta\alpha\iota$ (25) bat izango litzateke, esate abstraktu (26) bat, eta ez litzateke zilegi izango hemen predikazioaz edo konposaketa adieraziz hitz egitea eta bakarrik esanañi hutsezko mintzatze bat funtsatuko litzateke. Hala ere, izatasuna zio dela esaten digu

Aristotelesek, ez "Gamma" liburuko esanahiaren defigizioan baina bai, beste leku batzuren artean, aipatutako Z 17-ko pasartean eta, beraz, "Zergati" izate hau justifikatzeko izatasunean edo izatasunaren gauzatzean, hau da, esanahiaren gauzaketan, "zergati"-ari dagokion bikoizketa hura barneratu beharko dugu, izatasunaren adierazpena egitura predikatzaileari egokituz. "Gamma" liburuan, aipatutako defigizioan, esan bezala, ez zuen zergatiaren aipamen zuzenik egiten, bakarrik adigaia eta gaia ezartzen zituen elkarren aurrean eta hauen arteko bateraketa gaiak "ti en einai"-a jasotzean eta sujetu edo izatasun bihurtzean letzake; Z 17-n zertasanaren eta gaiaren arteko loturaren jorratzera itzultzen da baina hemen zer izanaren hizketa abstraktua, eta hizketa tautologikoa ere "A A da", gainditzeko gaiaren eta zertasanaren arteko bateraketa egitura predikatzaileara itzultzen du; bateraketa hau ez da azalduko "ti esti". galderaren bakuntasunean baizik eta bere bikoiztasunean gogartuko da. Horretarako "Gamma" liburuan "ti" bezala adierazita zetorrena hemen "ekai" bihurtzen da, zertasanaren gauzaketa, eta esanahia, ekaiari emango delarik; "zergatik?" galderak, bada, ekaiari izango du mutur bezala eta ekaiari izango da egitura predikatzailearen sujetu.

Zertasuna ekaiari ezartzeak ez du esan nahi hemen mugagabetik mugatua sortzen denik; ekaiari ez da ulertu behar mugagabetasun hutsean, ekai konkretu bat bezala baizik; galdera ez litzateke "zergatik da ekaiari gizon?" baizik eta Tricotek dioen bezala "Pourquoi la combinaison des nerfs, des os, etc., forme-t-elle un homme?" (27)

S. Mansionek, Done Tomas Aquinokoa aipatuz, dioten bezala, predikazioa ez litzateke izango "materia est homo" "hoc materiatum est homo" baino (28). Ekai zehatz hau, dena dela, ez da zertasuna jaso aurretik zeozer konkretua, ez da izatasun bat, ez da batasun bat, gai da, euskarazko "gai" hitzaren zentzu bikoitzean: objektu zentzuan eta 2) zeozer izateko ahalmena duelarik oraindik zeozer hori ez dena.

Esanahia bilatzea, gaiaren eta kontzeptuaren arteko lotura bilatzea, beraz, ekai hori kontzeptuari lotzearen zioa aurkitzea da, ekai hoiak sujeitu eta batasun bat izatearen zioa aurkitzea. Hitz baten esanahiak berak adierazten duen gaiaren funtzioa edo zeregina zehaztuko du, berari dagozkion gaiak bete behar ditena. "Zergatik dira ekaiok etxe bat?" galdegingo bagenu erantzuna "etxe"-ren definizioan aurkitu beharko genuke: "babesleku direlako", erantzungo genuke; babesleku - etxeren definizioa - ez balira ez lirateke etxe izango.

"Ekaiok etxea dira" tankerako esaldietan, dena dela, ziozko harremanketa funtsatu dugun arren, ez du honek esan nahi "A B da" egitura predikatzailearen beste gauzatze bat bezala ulertu behar dugunik; egitura definitzailea ez da predikatzailearen parekoa, izan ere, hura honen aurreko izango da eta bere abiapuntua markatuko du. Egitura predikatzaileak ezin du iraganketa etengabe batean iraun ez izateriaren ikuspegitik ez ikuspegi logiko batetatik eta honen mugak zertasunean eta zertasuna eta ekaiaren arteko bateraketatik sortu dugun sujetuan, inherentzia sujetuan, emango dira. Hemen bada lehen sujetua funtsatu dugu, definizioaren gai izango dena eta egi-

tura aurrepredikatzaile bati erantzungo dióna, izan ere, hemen ez da ematen bi elementuren konposaketa, adimenezko eta izatezko munduaren uztarketa baino. Definituaren ezagupena ez da, hortaz, bi elementuren nahasketa eta horren frogapena bezala emango, intuizioaren bidez baizik; definizioaren bidez sujetua bere batasunean ezartzen da baina ez dago berataz frogapenik, atzematen da eta frogapen, hizkuntza predikatzaile ororen aurreko bezala ezartzen da.

ONDORIO GISA

Platonek era paradigmaticoen mundu bat eraiki tzen zuenean, hizkuntzaren egitura sintaktikoak, batik bat predikazioa, bigarren mailako planu batetara baztertuz eta nolakotasuna sustatibatzuz, Aristotelesek gauzen eta pentsamenduaren arteko harremanketari lehentasuna ematen dion logika bat eraikitzen du gauzen baitan sujetu-predikatu egiturarekin baliokidetasun bat duen egitura bat sartuz eta predikatuaren existentzia sujetuarenari menperatuz. Fysisa, izadia, izango litzateke, beraz, Aristotelesen paradigma.

Esanahiak guretzako balio erabakitzaile bat hartu du gauzateriarekin zubia botatzerakoan, baina bere jatorria konbentzio hutsean duenez hitzarekin esan nahi denaren azalpen soil bat eman daiteke eta konbentzio huts hori areagotzen ez duen artean ez du ezer benetazkorik adieraziko, hutsondoaren gainetiko urrats bat besterik ez da izango. Esanahiak edukiz betetzen denean hartuko du bere zentzu osoa, definizio bat denean eta, beraz, existitzen den gai bati dagokionean, adierazpide zientifikoen artean barneratuz.

Dena dela honek ez du Aristoteles erabat Platonen planteamen-
ikuspegi
duetatik hurrintzen, honek bezaia esentzialista bat defen-
datzen bait du eta izatasuna gauzaterian kokatzen duen arren, eta ez gogozko mundu batean, berataz ezagupen intuitibo bat egotera behartzen du gainerako ezagupen oro honetatik abiatuko delarik. Bestalde gauzetaruntz itzultze horrek beste mugapen bat jasaten du Aristotelesek hizkuntzaren azterketaren ikuspegitik ezartzen dizkion eske-

mekin; izan ere, behin eta berriro izateriaren lehentasuna aldarrikatzen duen arren, honetan hizkuntzaren egituren pareko mugapenak nagusituko dira; bai egitura predikatzailerak bai hitzen esanahiak edo definizioak gauzetan egitura egokiak aurkitzera bultzatuko dute, esanahiaren aldetik gaia bere lehentasunean sujetu, erreferentziabide, bezala ikusiko delarik eta predikazioari dagokionean izatasunaren eta akzidentearen arteko bereizketan isladatuko delarik.

Bestalde, hasieran agertutako Platonen dualismoaren arazopaz, eta Aristotelesen bere gainditzeaz edo ez gainditzeaz, esan dezakegu ez duela guztiz gainditzen zeren, . . . hesparru empirikoari atxekitzen dion lehentasuna arren, alde batetik pentsamenduak nolabaiteko autonomia hartzen duela ikus bait dezakegu, existitzen ez dena pentsatu ahalak ematen diona eta arrazonaketa logikoaren autonomia ere, eta bestetik, ikuspegi epistemologiko batetik, bi ezagupen mota bereizteak, intuitiboa eta predikatzailerak, nolabait Platonen bi munduen eta bien ezagupenen arteko bereizketa birrekoiztea izango bait litateke.

II

OROKORRAREN EXISTENTZIAZ

SARRERA

Aurreko atalean hizkuntzaren egitura nagusienak zeintzu diren azaldu nahi izan dut, eta hau nagusiki hitzen heuretatik kanporuntzako zeozertara igorri beharrean oinarritu dut, hitzen esanahian eta edukitsu izan beharrean algia. Hizkuntza eta pentsamendua funtzio orokortzaile batetik sortzen ziren eta gauzataruntz itzultzen ziren berriro, beti hoiien baitan azken arrazoi funtsatzailea aurkituz. Bigarren atal honetan, berriz, zera aztertuko nuke: ea orokorraren gauzetatik irteteak eta gauzataruntz itzultze horrek existitzen den zeozertan duen bere benetazko jatorria ala orokorra, haatik, pentsamendiaren edo hizkuntzaren eskema bat bezala geratzen den finkatua indukzio prozesu baten ondoren, gauzetan benetazko kidekorik ez leukaketelarik. Honetarako, jakina, existentziaren erak aztertu beharko ditugu aurrenik, edo existentziaren era behinenak, bertan aurkitu beharko bait luke, azken batean, orokorrak berari legokiokeen existentzia eta, hortaz, existentzia negusiki eta lehenik izatasunean ematen denez, bere mugapanik behinenak aztertu beharko ditugu.

Atal hau, orduan, izatasunaren, eta existentzia baldintzen, azterketa batekin hasiko dut gero orokorraren existentziaren arazoa aztertzerara pasatzeko. Azterketa honi eskutartean erabili ditudan egileen arazoari buruzko iritziak laburki azalduz ekingo diot, gero orokorraren azterketa bi puntutan oinarrituz: bere zio kutsua

I

IZATASUNA ZEHAZTEN

Jakina da, izatasunak ere, beste zenbait kontzeptuk bezala, gorabeherak jasaten dituela Aristotelesen testuetan bere adierari dagokionez. "Kategoriak" tratatuetakoa alde batera utzita, eztabaidatuena bait da, baita metafisikako testuan bertan ere aurki daitezke aldaketaok; hots, B. Dumoilini jarraiki (1), gopikoetan izatasunak orokorra izendatuko luke beti eta inoiz ez banakoa. Metafisikako 9-10. atzetan, Metafisikako 10. atzetik zaharretarikoan alegia, izatasuna orokorrari oposatua bezala agertzen da eta Z liburuan orokorra eta berarekin batera generoa ez izatasun bezala kontsideratzen dira, izatasuna, nagusiki, era eta ekaiaren arteko konposatua izango delarik. Urrango lerroetan izatasunaren ikuspegi bateatu bat ematen saiatuko naiz batik bat honek esanahiaren eta predikazioaren teoriarik izango duen pisuari begira. Honetarako, azken finean, bere heldutasunezko teoria azaltzeko duten testuak hartuko ditut gogotan, Z liburukoak eta $\Delta 8$.

Z3 izatasun izan daitezkeen edo kontsideratuak izan diren kontzeptuak zehazten hasten da:

"Izatasuna lau era nagusitan adierazi ohi da, gehiagotan ez bada. Izan ere gauza bakoitzaren izatasuna zertasuna nahiz orokorra nahiz generoa eta laugarrenik sujetua dirala dirudi. Sujetua gainerako gauza guztiak berataz esaten diren zera da, bera beste

ezertaz esaten ez delarik, horregatik berataz egin beharko ditugu lehenengo bereizketak, izan ere badirudi lehen sujetua dela nagusi izatasuna. Zentzu batean ekaia dela lehen sujetu hori esaten da, beste zentzu batean era eta hirugarrenik bien arteko konposatua."

Lau esapide hoiak, zertasuna, orokorra, etab. izango dira bada izatasun izateko hautagaiak, Z liburuko atal desberdinetan ^{azaltzen} joango direnak eta sujetua, azpian datzana, izango da aztertzeari lehenik ekingo diona, bere predikazioaren helburu eginaz. Baina sujetu horrek, azpian datzan horrek, bere egituren eszizio bat jasango du; izatasunean, lehen sujetu zentzuan, hirukoizketa bat sortuko da. Ekaia, era eta bion konposaketa izango ^{dira} hirukoizketa honen emaitza eta sujetuaren hiru osagarri hauek izango dira, nola edo hala predikazioaren azken muturra ordezkaturiko dutenak, predikazioaren hariak ezingo du areago joan. Brontzezko zirkulua hartzen badugu adigidez eta bere baitan hirukoizketa hori zertu, bere ekaia, brontzea, ezingo dugu beste ezertaz esan, baina ezta ere bere era, zirkulua, eta ezta halaber konposatua; brontze diogunean bere baitan go zozter esango dugu baina baita halaber zirkulu diogunean, brontzezko zirkuluaz "zirkulu" diogunean ez deritzogu brontzeari erari baino, eta konposatua izendatzen dugunean ez deritzogu ez erari ez ekaiari bajakoari baino. Hiru mugapenok azpian datzana agerkari bezala azaleraziko dute, agerkari bihurtzen duten hiru agerpen mota zehaztuz, baiha hauek ez dira bere osagarri bezala ulertu beharko

baizik eta izadian predikazioaren azken mutur izan daitezkeen hiru bereizgarri, guri agertzeko hiru modu. Sailkapen hau, beraz, ez da azpian datzanaren azpizatiketa bat izango eta ezta ere lehenengo sailkapenaren osagarri bat:



izango da hemen eskema eta ez ostera:



Baina izatasuna ezin izango da mugatu lehenengo irizpide honekin, ez da aski, οὐ γὰρ ἴκανόν, predikazioaren azken muturra izatea; $\chi\omega\epsilon\iota\sigma\tau\acute{o}\nu$ καὶ τὸδὲ τι, "stable-autonome et ceci" (2), izango da izatasuna ezaugarritzeko bigarren baldintza bai Δ liburuan bai Z-n azalduko dena. Honela jakina beste zehazpen bat sartuko da azpian datzanaren eta, beraz, izatasunaren mugapenean. Ekaia era eta konposatua azaldu zaizkigu lehen baldintza bete zezaketen izatearen lehen agerpen bezala edota lehen ezaugarri horren fruitu, baina bigarren baldintza hori ezartzean hauen artean murrizketa bat eman beharko da. Lehenengo baldintza huts horrek ekaiak izatasun, azpian datzana, bihurtzen du baina ekaiak jaso dezakeena ez da predikazioa

nomme) eta hau zerau <ceci> izatea nagusiki izatasunari dagokiola, eta, horregatik, espeziea eta elkarretaz osatua dena ekaia baino izatasunago direla lirudike." (4)

Azpian datzana eta izatasuna izan behar duenak predikazio kateaketari etena suposatzeaz beste - hizkuntzazko ezaugarria izango dena -, banangarria eta hau zerau bat izan beharko du. Era eta era gehi ekaia geratuko zaizkigu hemen orduan hizkuntza funtsatzeko bidea eman diezaguketenak, aztertuko diren predikazio bi motak bideratuz, hau da, kategorien baitakoa eta kategorien artekoa. Bai na era eta era gehi ekaiari dagokionean arazoa ez da horren errez erabakitzen jarrera ezberdinak azalduko bait ditu arazo honetan.

Izatasunak predikazio bi mota hoiien baita izan beharko du, bai predikazio definitzailearena bai kategoria predikazioarena:

"Izan ere, gainerako gauzak gorputzen afekzioak ekintzak eta gaitasunak dira ..."(5)

Afekzioak, ekintzak, gaitasunak, kopuruak, etab., atxekitzen diren gauzak dira, ez izatasunak eta gauza guzti hauekiko inherentea, azpian datzana, izango dena beharko dugu eta honetarako irtenbidea lehen aurrkitzea izango da:

"... baina gauza hauek dagozkion lehen zera, hori da izatasuna."

Izatasuna sujetu, azpian datzana, izate hori () zehaztu

beharko da gehiago beraz; hau zera eta banangarria izango da eta hau predikatzen diren mugapenen inherentea den lehen zera izango da, zeinari beste atribuzio guztiak datxezkion. Lehenetasun honek predikazio orotaz beste den zeozer egotea eskatuko du orduan, bai predikazio definitzaileaz beste den zerbait (6) bai predikazio kategorikoaz (7):

Badirudi, beraz, lehenetasun bi zentzu hartzen dituela baita definitzailea eta bestea izatasuna ez diren beste mugapenen inherentziazkoa. Non edo izatasunaren zein motatan eman ahal izango da lehenetasun hori ekaia errefusatu dugula ahaztu gabe? "Kategorietan" lehenetasun hori nabarmenki banakoari izendatzen zitzaion, hemen konposatutzat jotzen denari alegia, baina banako hau izen propioen subjektua izango da eta ez du definiziorik jasoko. Halako izatasun bat ezingo da izan ^aezgupenaren ^{gai}nahiz eta izango den lehena zentzu ontiko batetan, "bearer" bat. Hemen bada ezagungaiaren, predikaziogaiaren eta izakiaren arteko harremanketaren arazoa sortzen da. Alde batetik platonismoari kritikarik: zarrotzenak harek izateriaren baitan sartzen duen banaketa izango litzateke, izate bi hesparru sortzen bait zuen; Aristotelesentzat banangarritasuna ez orokorra, ez gauza anitzi datxezionarena, baizik eta banakoarena izango litzateke. Baina hemen ere "ez da aski" esan genezake, banangarria horrela ulerturik konposatuaren adierazpen soila izango litzateke eta existentea bakarrik izango luke kontutan, honela izatasuna bere akzidenteak mugatua bezala agertuko litzateke eta kategorien

arteko nahasketa adierazten duen predikazioa besterik ez liguke ziz-
legiko, bainaⁿ bere akzidenteekiko harremanketan iraungo bait
luke. Baina honela ez genuke lehen bat erdieziko eta beraz funtsa
tu ahal izango lukeen predikazio kategoriko hori ere ez luke funtsa-
tsatuko.

Hemen arazo honi irtenbide^a emateko argigarria deritzodan bereizketa bat proposatuko nuke banangarritasunaren kontzeptuan, nahiz bera "Corpus"-ean zehaztuta ez azaldu: existentziazko banangarritasuna eta adimenezko banangarritasuna; halako bereizketa batek ez luke bilduko adimenaren eta errealtatearen arteko eten bat, haitik biak errealtateari legozkioke baina lehenak banakoaren hortzemu-
muga izango luke kontutan - banangarritasun honek Tricotek ematen
duen interpretazioan izango lukeelarik islada bat --, eta bigarrenak, (8)
berriz, izatasuna bakarka existi daitekeena bezala, beste mugapenak kontutan eduki beharrik izan gabe, gogartuko luke eta, beraz, ezagupenaren lehen gai bezala edo kath'auto existitzen dena lege⁽⁹⁾; bakuna alegia.

Metafisikan eta batik bat Z liburuan banako horrek era gehi-
ekala egitura jasoko du, konposatua bihurtuko da (σύνθετον) baina egituraketa honek ez gaitu arazo haizetatik aterako. Hain zuzen Z15-n Aristotelesen argiro errefusatzen du ezagupen gaien hesparrutik; hemen bi izatasun mota bereizten ditu, konposatua eta era edo adigai-
gaia. Konposatua banagarria izango da ⁿ eta kategorietako lehen izatasuna bezala bere akzidenteekin batera atzemango da; baina banagarria

izatearekin batera beste ezaugarri bat jasoko du, sortzapena eta suntsiketa abegiko duen izatasunaren gauzatze bakarria izango dela eta, beraz, desagertzean bere existentzia zalantzarria (ἀδυναμία) izango dela.

"Gauza suntsigarriak, sentipenen arlotik aienatu direnean, zalantzarriak dira zientzia dutenentzat." (10)

Konposatuaren ezagupena ihardunak eransten duen iraunkortasunetik kanpo geratuko da eta ez du hartzaz predikazio zientifikorik jasango. Zientzia ezabatu egiten da sentipenari menperatzen gatzatzean eta sentipen hoiien arrastoak ariman irauten badu ere ez du kath'auto bat bezala iraungo, arrasto horren erreferentzia ez da mugapen iraunkor bat izango, banakoaren ekaigabeketa bat izango da. Adimenean txekitzen den era banakoarena da, Sokratesena adib., eta banako horren ezaugarriak islatatzen ditu. Hemendik ezin izango dugu era absolutua edo abstraktua atera (ἀβυσσος ὄρωσ), izan ere existentzia gaia banandu dugu baina ez adimen gaia, bakuna.

Lehen, bada, ezin izango dugu aurkitu ez ekaiari, inherentzia sujetu besterik ez bait zen, ez konposatuan, banakotasunari lotuta dagokionez ezin izango bait du erabateko lehentasun hori ordezkatu. Lehen sujetua edo gauza baten kath'auto ezaugarriak bilatzeko, bada, era hutsera jo beharko dugu.

II

OROKORRAREN EXISTENTZIAZ

Z 13-16-n Aristotelesen orokorraren izate maila aztertzeari ekiten dio. Orokorra izatasun kontsideratua izan da bere aurretik, batez ere Platonen dotrinan eta bere jarraileen aldetik eta, beraz, errealitatearen zati edo, are gehiago, errealitatearen mailarik gorenatzat joa izan da, honela joera honen muturreko jarrera, erabateko edo gehiegizko errealismoa, ekoitziz orokorraren "ante rem" existentzia bat defendatuz. Aristotelesen jarrera honen aurka erantzuten du orokorren "ante rem" existentzia hori begiramendurik gabe ukatuz, orokorra ezin izango da banandurik existitu. Halako ukapen batek, oro har, bi irtenbide alternatibo eskain ditzake, bata orokorraren existentziaren errefusatzeko horri zentzu zabalago bat emanaz, ez bakarrik bananduta baizik eta inolaz ere ez dela existitzen mantentzea; hau jarrera nominalista bat izango litzateke. Nominalismoak, bere teoria klasikoan, orokorraren existentzia ukatzen du eta izenak, orokorrak, "post rem" bezala gogartzen ditu, ez bait lirateke adimenaren eraiketak baino izango. Beste irtenbidea errealismo leundu bat bezala ulertu litzateke orokorrak "in re" batzuz izango liratekeelarik.

Aristotelesen ikuspegi ez kritikoa baizik eta positiboa interpretazio desberdinetarako lekua eman du; tradizionalki eskolastikoei jarraiki "in re" teoria izanda hedatukien onartua izan dena, orokorrek gauzen baitan heuren korrelatua, heuren eduki zuzena izango luketelarik, baina egunagoko kritikan azaldu dira orokorrak "post

rem"-tzat jotzearen aldeko iritziak. Hemen, egungo egile batzuren iritziak, bai ikuspegi baten aldekoak bai bestearenekoak, azalduko ditut laburki, gero, ohar batzuren bidez orokorraren dimentsio ontologikoaren iritzi batzu emateko. Honek ez du esanahi azterketa exhaustibo bat egingo dudarik edo behin betirako erantzunak emango ditudarik; nere helburua arazoa nere lantxoaren ardatzean kokatzea da, besterik ez.

"Post rem" teoriaren defendatzaileei dagokienez I. Düring eta A. C. Lloyd aipatuko ditut. I. Düringek orokorrari, Kategorie-⁽¹¹⁾tako dotrina aztertzen duenean, balio objektibo guztia kentzen dio: "L'universale non ha alcuna validità come ente oggettivo, e non è neppure in rebus (come dicevano gli Scolastici)". Orokorrak, Düringen iritzi izatasuna izaten jarraituko luke, baina izatasun logikoa, bigarren izatasuna, eta kategoria hau hizkuntzazko sujetua den neurrian besterik ez legokioke; orokorra, bigarren izatasun hori, kontzeptu bezala edo kontzeptu sailkapen bezala kontsideratu beharko litzateke. Bestalde azaltzea komeni den beste puntu bat zera da: Düringek ere Llyden ezagupnaren eta hizkuntzaren egituratze bera defendatzen duela, bi hoiak eta errealitatea hiru maila ezberdinetan kokatuz. Orokorrak hizkuntzaren arloan izango luke bere lekua eta pentsamendua bere bitartekoa izango litzateke esanahia burutzeko.

Dena dela A. C. Lloyd da gartsukien defendatzen duena "post rem" teoria aipatutako "Form and Universals in Aristotle" lanean.

Abiapuntu bezala eraren eta orokorraren arteko bereizketa hartzen *du eta*, bere ustez, bereizketa hau ondo ez atzematea da ikuspegi errealistaren errua; bereizketa hori ondo zertzeak ezaugarrien "paleness" eta predikaduen, "pale", ^{arteko} bereizketa sartzea lekarke. Horrela erak, ezaugarriak, gauzen baitan emango lirateke, "in rem" izango lirateke eta orokorrak, berriz, hizkuntzazko mugapenak izango lirateke, ez lukete trszendentzia ontologikorik edukiko. Orokorrak beraz ez lirateke kanpoko munduaren zati bat izango baina eran izango lukete bere edukia, bere gauzatzea. "Post rem" teoria batek ez du Lloydentzat zertan nominalista izan, gehiagò izango litzateke kontzeptualista. Hau, jakina, proposizioak, esakuntzak eta gauza egoerak, edo hizkuntza, pentsamendua eta errealtatearen arteko bereizketan oinarritzen da. Kontzeptuak, pentsamenduaren zati bakunak, esakuntzen edukia izango lirateke, esakuntzen esanahia, eta gauza egoerek proposizioak, kontzeptu konbinaketak, egiazko edo gezurrezko egingo litzukete.

Jarrera errealista defendatzen dutenen artean bñ egileren iritziak aipatuko ditut. Mario Mignuccik honela dio ⁽¹²⁾: "In questo senso la conoscenza dell'universale è conoscenza di una realtà oggettiva, data nelle cose prima che nell'intelletto, sí che il καθόλου ^{-λου} è in re prima che in intellectu, o piú esattamente è in intellectu perché secondo tutto se stesso è in re;" Orokorra, bada, gauzaren atzemaketatik ateratzen da eta atzemaketa horren ondorioz atxekitzen da adimenean; ez da Lloydentzat bezala hizkuntzaren on-

da. Atzekipen hau "est dans" motakoa izango litzateke eta bide honetatik atzekitzen dena ez litzateke benetakoa izango, zerbaitezaz esaten dena "est dit" den legez. Vuilleminen ustetan abstrakzioa predikazio mota honetan azalduko litzateke, hemen emango litzateke ἀειεσις-a eta, beraz, bakarrik zentzu honetan izendatu ahal izango genuke Aristotelesen filosofia kontzeptualista. Errealizatasuna izan aditzaren lehen erabilerari legokioke, orokorraren predikazioari eta kontzeptualizatasuna bigarren erabilerari, akzidenteen predikazioak pentsamendu desatxekiak (détacher) izango lirateke; izan ere, hauek ekaiaren zergatiaz, banakotasunetik, sortzen direnez heuren gogarketak ekai horretaz gabetua joan behar du, existenziaz gabetuak.

Lehen predikazioak, bada, erak, errealitatea gogartuko luke baina ostenduko litzaioke, ihes egingo lioke, bigarren predikazio erak, aldiz, orokorraren gogarpeketik hurrintzen diren mugapenak jasoko lituzke baina abstraktu, zergabetu, bezala, adimenaren operazio huts gisa.

P. Aubenquek () arazoa zehazki ikutzen ez badu ere, orokorraz luzaro mintzatzen denez interesgarria deritzot bere iritzia batzu azaltzea; nere ustez irtenbide bat atera dakioke arazopari bere ideia batzuren bidez. Orokorra hizkuntzazko instantzia bat izango litzateke berarentzat ere, orokorketa prozesu logiko ^{batean} murgiltzen du, ihardunaren eginbharra bait da, baina prozesu honek bere muga generoan aurkituko du. Hemen bi aipamen egin nahiko nuke (14):

"Si bien es preciso alcanzar el universal para constituir un discurso científico - es decir, que no sea sólo discurso, sino que remita a la cosa misma - no hay que sobrepasar ese universal definido que es el género, so pena de caer en la vacuidad." (15)

"El género, como hemos visto, es el lugar donde el movimiento universalizador del discurso tropieza con la realidad de las cosas; es la unidad máxima de significación." (16)

Hemen ere orokorketa prozesu bat bezala ulertu beharko genuke baina bere muga generoan, definizioan, izango luke. Generoa errealitatearen eta orokorketaren arteko ertzea da; generoa areagotzen badugu ezerezera gatoz. Orokorra, esanahia duen neurrian, bakarrik izan ahal izango da zientziaren tresna eta esanahi honek generoren bidez izango du errealitatearekin lotura. Berez, orokorra "in re" bezala kontsideratu ezingo bagenu ere, behintzat errealitateak zuzenki eta hestuki mugatua izango litzateke.

III

OROKORRA ZERGATIEN EZAGUPENA

Orokorra ez dela existitzen nabarmenkién 15, 1071a17-n adierazten du Aristotelese:

"Ikusi behar da, gainera, zioetatik batzuek orokorki' adieraz daitezkeela, eta besteak ez. Gauza guztien lehen hastapenak dira: gauza mugatu hau egitez eta lehenik dena, eta, bestalde, gauza hori gaitasunean dena. Aipatutako orokorrak, beraz, ez dira existitzen. Banakoa banakoaren hastapen bait da izan ere; gizon orokorra gizon orokor batena izango litzateke baina ez dago hallakorik..."

"Eta baita ere espezie bereko gauzen zioak ere desberdinak dira, ez espezieari dagokionez, baizik eta banakoen zioak elkarre desberdinak direlako; zure akaia eta espeziea eta higidura zio ^{kiko} desberdinak dira nirekiko, nahiz eta adigai orokorrean bat diren."

Orokorrak, bada, ez dira existitzen, ihardunaren gai dira baina ez dute benetazko existentziarik, edo, hobe esanda, ez dute existentzia banakoa izango. Orokorrek sujetuaren ezagupena zilegitzen dute baina ez dute berezko existentziarik izan ere existentzia "tode ti"-an eta atzematen denean emango da baina orokorra ezin da "tode ti" bat izan, denboraren eta espazioaren barruan sartuko genuke eta orokor, ^aezgupen iraunkor baten bide, izateari utziko lioke. Egite hutsa banakoa litzateke eta bere zergatia egite konkretu batek izan beharko du. Zioa ez da ez generoa eta ezta espeziea

ere izango beraz, era gehi ekaiaren konposatu konkretua baizik. Honela Aristotelesek gauzaterian izate sentigarririk kanpoko edozein mugapen berneratzeari erresistentzia azaltzen digu.

Orokorrak "adigai orokorra" (ἡ καθόλου ἀρχή) delakoaren batasuna adierazten du - ez existentetarena - eta adigarritasuna funtsatzen du; izan ere, zure zergatia zure aita izango da, ez gizon, baina zure aita zein den ezagutu gabe badakigu "zer den", badakigu seguru gizon bat eta ez zaldi bat dela. Orokorrak, zioa ez den arren, zioa ezagun eraziko digu baina ez zio konkretua; "Adigai orokorra" ezagutzen den zioa, izango da, ἀλλ' ὅταν βεβαιωθῆ bezala ὡς ὁ ἀρχὴ (17) zioa. Lehenak, konkretuak, ekintzan bi egite desberdin emango digu, bi gizon bata lehena eta bestea ondokoa izango direnak baina orokorrek ezagun erazten digun zioa bien baitan era baterakoa izango da, bai Paleo bai Akilesengan egitearekin era baterakoa izango da nahiz eta ez den izango ez bataren ez bestearen zio zuzena.

IV

OROKORRA ETA PREDIKAZIOA

Nabarmena da bai "Kategorietan" bai "Metafisikan" orokorra-
ren izaera predikatzailea, han nola hemen orokorra zerbaitetaz esan-
go den zeozer izango da (καθ' ὑποκειμένου λέγεται); baina ba-
laere hurrintasun bat ematen da bi liburuetan orokorrarekiko trata-
mentuan, lehenean izatasuntzat jotzen dena, bigarren izatasuntzat
hain zuzen, Metafisikan behin eta berriro izatasunetatik kanpo uz-
ten da. Honen argibide bezala, egon daitezkeen beste azalpen batzu-
ren artean, "Kategoriak" tratatuari legokiokoen azterketa logiko ba-
ten jitea eta "Metafisika"-ri legokiokoen azterketa ontologiko ba-
ten jitea izango litzateke. Lehenak, goian aipatutako ezaugarria
alde batera utzirik orokorraren sujetu izan ahala, sujetu logikoa,
behaturik, izatasunen artean bilduko luke, baina "Metafisika"-n hau
baino, banandu existi ahal izateko irizpidearen hildotik ukatuko
litzaiokete orokorrari izatasun izate hori.

Dena dela, "Metafisika"-n izatasunaren egiturazko zehazketa
egitean, eta era eta ekaiaren artean bereiztean, badirudi erak no-
labait bereganatzeⁿ duela bigarren izatasunaren papera harek, nola
edo hala, azal ontologiko bat zuen neurrian. Honela "gizon"-ek, adib.,
"Kategoriak" tratatuan betetzen zuen paperean pitzaketa bat sortuz;
era eta orokorraren arteko targoa bat.

"Metafisika"-ko zehazpen honek badirudi eran ezartzen duela
orokorrak izatasun izatean bereganatzen zuen existentzia eta oro-

korrek, aipatu dugun ekaigabeketaz beste, existentzia gabeketa bat ere jasango duela, eta beraz balirudike "Post rem" tratamendua egokiago izango litzaiokeela." Orokorrak hizkuntzaren, edo pentsamenduaren, funtzio lirateke, besterik ez eta ez lukete gaiarekiko iraganketa bat jasango, existentziaz beste zeozer izango lirateke eta era banakoen bilduma bat ordezkatuko lukete. Baina era eta ekaiaren arteko eten honek eta darraion orokorraren existentziagabeketak azken batean ekai hutsak ezarriko lituzkeela existentzia baldintzak leiarke, era batera existenttearen eta ezagugarriaren arteko etena sortuz.

Orokorren existentziagabeketa hori onartuta ere bere suje-
tuaren zehazpen ^{bat} dakarrenaz, hau da bere baitan bereizketa bat sartzen duenaz, ez dago zalantzarik. Baina bereizketa hau bi eratara uler daiteke, suje-tu hori bere kidekoen arteko sortan batzsun bat bezala sartuz eta sota horretako kopuruaren osatzaile bihurtuz, hau da, zaldia beste hamar zaldien artean batzsun bat bezala barnera-
tuz, edo, bestela, bera beste era batera ezaugarrituen aurrean bereiziz, hau da, zaldia gizonaren aurrean bereiziz, bakoitzai dago-
kion sortako elementuak kontutan hartu gabe. Lehenengo kasuan

"X gizona da"

esatean

"X gizon sortan banako bezala sartzen da"

adieraziko geruke, baina bigarren kasuan

"X gizon bezala zaldiatik bereizten da"

Azken kasu honetan predikazioa nolakotzailea izango litzateke eta ez luke sortaren kopuruaren inolako erreferentziarik izango; orokorrak adiera, ten duen era sujetuan ahituko litzateke eta ez litzateke era abstraktu baten banakoketa bat izango, Lloydek defendatzen duen bezala. Beste kasuan, berriz, era abstraktu bat eta bere banakako gauzaketak bereiziko lirateke.



Hemen erabaki beharreko arazoa zera litzateke: eraren existitu beharra behin finkatua, funtzio predikatzailean zein paper jokutzen duen bereiztea eta bere orokorrarekiko harremanketa, hau da, orokorrari zegokion izaera predikatzailearen artean eta eraren existente izatearen artean egon behar duen lotura zehaztea. Hau Z14-n bilakatzen diren bi argudiapenetan argituko litzateke bata non eraren, espeziearen, kath'auto existentzia eztabaidatuko den eta bestea non predikatuaren esanahiaren batasunaren ondorioak aztertzen diren. Argudiapen hauek platonismoari kritika baten testu in guruan ematen dira, harritzekoa ez dena kontutan hartzen badugu azken batean hemen emango den irtenbidea Platonek ezartzen zuen ihar-dunaren ezintasunaren arazoari irtenbidea izango dela, proposatu diren predikazioaren bi ulerkuntzak gauzateriaren batasunaren edo erdibitzearen arazoaren isla da besterik ez bait dira.

Lehenengo argudiapena predikazioaren sujetua biltze edo sujetuan bildua izatean letzake eta nagusiki 1039a 28-33 tartean bilakatzen da. Ideiak kath'auto eta banandu bezala kontsideratzen baditugu baina, bestalde, bere sujetuei atxekitzen badizkiegu, anima-


lia gizoni eta zaldiri adibidez, animalia kath'auto eta baeandu bat denez, sujetu bakoitzaren baitan autonomoki emango da eta ez da bien biltzaile izango, zaldi eta gizonen biltzaile, haatik sujetu bakoitzaren baitan bildua izango da:

"gizona animalia da"

"zaldia animalia da"



Animalia ulermenean ($\lambda\acute{o}\gamma\omega$) bat da bi esaldietan baina bere erreferentzia konkretu bat baldin bada, "eramaile" bat, gizonen elementu, zati, ez biltzaile bihurtzen da, izen propioak bezala erreferentzia zuzen bat eskatuko bait du eta hōri gizonenbaitan edo gizonekin berberatuta emango da. Animalia "tode ti" bat bezala atxekitzea, "tode ti" bat esan nahi duelarik, animalia konkretutasunera murriztea izango da, sujetu bakar baten adierazle bihurtzea edo sujetu bakar baten elementu. Horrela gizona ere banandu bat izango zenez, animalia ideia banandu baten baitango ideia banandu bat izango litzateke izakien existentziazko barne anitztasuna softuz, eta ez litzateke orokorketarik, baketarik, egongo, ezingo genuke animaliaaren bitzez honako eskema bat azalduko:



Guztiau, nolabait, Z13-ko aplikazio bezala ulertu beharko da, zeren han izatasunaren existentziazko bakuntasuna edo izatasun gehiago abegi ezina baieztatzen bait da eta, halaber, $\tau\acute{o}\delta\epsilon\tau\iota$ -eta $\alpha\upsilon\tau\acute{o}\nu$ edo $\tau\alpha\upsilon\acute{o}\nu\delta\epsilon\tau\iota$ -ren arteko desberdintasuna. Zera dio Z13-ko ondorio gisa (18):

"(1) Guzti honetatik, ikus daiteke argiro orokorki izateei dagokien ezer ez dela izatasuna eta (2) komuniki predikatzen den ezerk ez duela esan nahi hau zerau, baizik eta nolakotasun bat."

Animaliaren predikazioa ez da, bada, izatasun baten predikazioa, ez du ez anitztasuna sortzen sujetuan eta ezta ere sujetuaren elementu bat izendatzen, eta bestalde bati baino gehiagori atxekitzen zaiona ezin da "tode ti" bezala atxeki, bere esanahia sujetuaren mugapen bat da baina ez da banatu bezala atxekitzen zaion ezer; izan ere, kategorietan ikuspegi logiko batetik ikusten den bezala, ezin izango da zeozer konkretua zeozer konkretuaz esan.

Bigarren argudiapena predikatuaren esanahi batasunean edo unibozidatean letzake. Animaliak bat izan behar badu bai "gizon"-engan bai "zaldi"-engan, nola existi ahal izango da bietan era batera eta zatiketa bat jasan gabe? Orokorrak sujetu asko mugatu behar du baina ez du askotasun hori kopuruzko askotasun bat bezala kontsideratuko, horrela kontsideratzeak, jakina, bere baitan existentzia zatitze bat suposatuko luke, beraz existentzia bananduarekiko abstrakzio

egin beharko da, ez da existentzia banatua kontutan hartuko eta ez da, hortaz, kopuruzko batasuna adieraziko, nolakotasunezkoa baino. Orokorrek adieraziko duen batasuna esanahi bat izatean, nolakotasun bat adieraztean, oinarrituko da eta kopuruzko, ekaizko edo existentziazko askotasuna gaitasunean besterik ez du abegiko.

ONDORIOAK

Atal honen lehen zatian, izatasunaren azterketari zegokio-
nean, bi ezaugarri nagusi aurkitu ditugu bere existigarritasuna mu-
gatzen zutenak, prediakzioaren sujetu izatea eta banagarria eta
hau zerau izan beharra ere; bi ezaugarriok izatasuna prediakzioa-
ren eta hizkuntzaren fundatzaile bihurtzen zutelarik, hizkuntzean
ematen diren predikazio zientifiko bi motentzat errealitatezko erre-
ferentzia egoki batzu eskainiz.

Ezaugarri hoiak izatasunari lehentasun jite bat eranstean zi-
ten, izan ere "lehen zera" erako espresio batetara itzul zitezkeen,
baina lehentasun edo banagarritasun hori ezin zen zentzu uniboko
batean hartu; ezagupenaren gaien eta existentziaren gaien, banakoen,
arteko etenak existentzia gaiaren baitan banagarritasun haren zen-
tzu bikoitz bat berezterera behartu gaitu: existentzia hutsezko ba-
nagarritasuna eta adimenezko banagarritasuna, horrela lehentasun
horretan ere bikoizketa bat sortuz. Baina, azpimarratu dudan bezalaxe,
bikoizketa honek ez gaitu existentearen hesparrutik aterako, adime-
nezko banagarritasunak ez du existentzia gabeketa bat suposatuko,
eta azpian datzanaren agerpenak izango ditugu oraindik ikusmiran,
ekai, era eta konposatua alegia. Baina era hutsa adimenezko banan-
garritasun horri dagokion izatezko egitura denez, ezin izango dugu
zehaztu bere adimenezko funtzio horretaz gabetua eta, beraz, oroko-
rrarekin izan dezakeen loturan ulertu gabe, eta lotura horiek eraren
eta orokorraren definiziozko kontraesanaren gaindiketan hartuko du

bere zentzua kanpoko munduaren eta pentsamenduaren arteko etenaren-
tzat gainditzebidea ezarriz, Kontraesan hau honela zehatz daiteke:

1) eraren sujetu izan beharra eta banandurik existitu beharra; 2)
orokorra predikatu izan beharra eta bakarka existi ezintasuna.

Arazo hau eta, beraz, eraren nahitanahiezko existitu beharra emana,
orokorraren status ontologikoaren arazoari buruzko erabakia ondoko
lau urratsotan azalduko dut.

1) Lehenik, esan bezala, orokorra ezin dela banandurik exis-
titu baiezta behar da ezbairik gabe eta hau ikuspegi ontologiko
batetik frogatu daiteke "gizon" hutsaren, predikatu hutsaren, exis-
ti ezintasunean oinarrituz, bai bera, atxekia denez, ezin delako
sujetuaren izatasunarekin berdinkatu bai bere elementu bat
ezin delako izan, izatasunean bertan bikoizketa sortuko bait genu-
ke; eta baita ere ikuspegi logiko batetik, izan ere Kategorietako
καθ' ὑποκειμένου λέγεται, ἐν ὑποκειμένῳ ἔστιν bereizketa hartzen
badugu kontutan zera baiezta^{tu} beharko dugu: orokorra ez dela berez
sujetu batetan ^{banandu} den (**ἐν ὑποκειμένῳ**) edo ^{banandu} sujeto bati dagokion (**ὑπέ-**
χθιν) gauzetakoa, banandu bezala existentzia akzidentala ukatzen
zaiolarik eta, bestalde, beti zerbaitetaz esango dena denez, beti
predikatu dena denez, eta banakoa aurreuposatuko duenez, ezin izan
go da bere baitango zerbait bezala existitu, honela banandurik exis-
titzeko bi bideak ukatzen zaizkiolarik.

2) Orokorra beti predikatu bat izango da, beraz, irasantzai-
lea, sujetua beharko du eta ez da berez adigarria baizik eta bere

eduki izango diren gaiak behariko ditu, existentzia aurrekotasun bat eskatuko du benetan adigarria izateko. Sujetua behar honek ez du orokorra sujetutasun orotik kanpo jartzen, izan ere, sujetu logiko bezala ere uler daiteke eta definizioa jaso, baina sujetu izate honek ez du zerbait lehena bezala gogartzen orokorra, ez du ez adimenezko ez izatezko lehehtasunik izango, menpekoa izango da.

3) Orokorra nolakotasuna da. Platon ez zen gauza izan existentzia gabeketa buruzatzeko, existentzia abstraitzeko eta ideiak, orokorrak, sujetu bihurtu zituen, ez zegoen predikaduen iraganke-tarik eta ideiak banandu autosubsistenteak ziren, horrela ideiek ez zeukaten objektu erreferentziarik, ez zegoen esanahirik, baina, bestalde, pentsamendua burujabe egin zuen. Aristotalesek, ostera, pentsamenduen eta gauzateriaren arteko bereizketa jaso eta manten-tzen duen arren, pensamendua eta esanahia zerbaiten erreferentzia-rekiko menperatua egiten du. Hau lehenago hitzen esanahi soilari ze gokionean nabarmendu badut ere gehiago zehaztu behar da orokorraren funtzio predikatzaileari begira. Orokorra, behin eta berriro dio Aristotalesek, nolakotasun bat da, ποῖόν, τοιόνδε, sujetu baten baitan smaten den zeozer, eta ez da, orduan, kopuru bat izango eta atxekitzean gaia, sujetua, bere kidekoen sortan sartzen duen arren, bere kideko gainerako "tode ti"-ekin biltzen duen arren, ez du ez sorta horren kopuruzko batasun bat sortuko eta ezta ere sujetuan atxekitzen duen ezaugarriaren kopuruzko batasunik sortuko. Kopuruzko batasunek goian ukatutako existentziazko batasun bat bilduko bait

luke eta, beraz, orokorraren banakako existentzia. Baina orokorra-
ren batasuna esanahi, adierazpen, batasuna da, gauza bera esan nahi
izatean datza. Orokorra, καθ' ὅλου esaten dena da, banako guztiekiko,
baina sujetuak ez dira kasu guztien multzoarekiko kontsideratzen,
datxekion kasu bakunarekiko baino; zaldi predikatu bezala darabil-
gunean ez dihardugu zaldi X kopuruari buruz hitz egiten, zaldi ze-
hatz honi buruz baino; zerbaitetaz animalia dela diogunean ez gagoz-
kio animalitasuna ematen den kasu guztiei buruz mintzatzen, gizo-
nari buruz baino. Mintzatze esanahikor honek gai zehatzean, bakoit-
tzean, aurkituko du bere osaketa gaiaren mugapen bat emanaz, izan
ere nolakotasunak objektuak ez diren arren objektuaren mugapen (71)
bait dira (19), eta banandurik ez existitu arren izaterian izango
dute heuren gauzaketa, ez kopuruzko gauzaketa, esan dudan bezala,
ez kontagarria, baina existitzen dena.

4) Puntuok gogórtan harturik bada, azkenik, azaldutako oroko-
rraren "ante rem", "in rem" edo "post rem" jitea erabaki behar ko du-
gu. Hiru jarrera bereizi ditugu, errealista eskolatikoen interpre-
tazioa izango dena eta orainagokoetan J. Vuillemin eta M. Mignucci-
ren testuetan aurkitu duguna, kontzeptualista I. Düringek eta A. C.
Loydek defendatzen dutena eta hirugarrenik Aubenquen testuetatik
atera dudena eta nolabait bien arteko auziei irtenbide bat emango
liekeena.

Jarrera kontzeptualistak adimenaren eta gauzateriaren arte-
ko etena ezarriko luke eta orokorrek adimen hutsaren eskema izan-

go lirateke gauzetatik sorturikoak baina adimenean itsatsiak eta gauzen isladaketa zilegitzen dutenak. Adimenak nolabait gauzateria-
ren egitura jasoko luke eta gauzen eta pentsamenduaren arteko harre-
manketa ispiluketa moduko batetan letzeke. Paralelotasun honetan
orokorrak sujetu logiko papera beteko luke (I. Düring) bera areago-
tu gabe eta bere edukia eran sortuko litzateken targa batetan egon
go litzateke; eten hori era abstraktuki, existentzia gabetua, kon-
sideratuaren artean eta era banakoan artean ezarriko litzateke le-
hena orokorren eduki izango litzatekeelarik; eren baitango eten hau
Lloydek predikatu eta ezaugarri^aren arteko bereizketan oinarritzen
du, era abstraktua orokorren eduki eta beraz predikatu bihurtuz,
era batara sujetu eta predikatu izango litzatekeelarik, eta era ba-
nakoak izatezko instantzia hutsak eginaz.

a) Jarrera honi erantzuteko azpimarratu behar den lehen gauza
pentsamenduaren eta gauzen arteko zatiketa da. Orokorra pentsamen-
duaren tresna bezala agertzen zaigu eta erreelitatea, aldiz, era,
ekaita eta konposatuaren egitura pean. Lloydek orokorra edukiz be-
tetzeko era hutsaren eta era banakoaren arteko aipaturako eten ho-
ri ezartzen du lehenean "adimenezko banangarritasuna" ezarriko
lukeelarik eta bigarrenean "izatezkoa". Baina "adimenezko banangarri-
tasun"^a ez du Lloydentzat nik lehenago eman dioden zentzu ontologi-
koa, baizik eta adimenezkoa, era haren pentsamenduaren gai bat izan-
go litzateke, "era orokor" bat. Baina era hutsa adimenaren bidez baka-
rrik banan daitkeen arren honak ez du esan nahi ez adimenaren

tsa denik eta ezta ere adimenaren bidez banangarria den
 ra denik, izan ere, era gehi ekaia ere banan daiteke, edo
 tratamendu bat jasan dezake. Arazoa hemen ez litzateke
 dimenaren gaia existitzen den ala ez, nola den gogartua
 na, era hutsa pentsamenduan existentzia baldintzez gabe-
 kontsideratuko litzateke eta konposatua, berriz, existen-
 tzak ezartzen dioten mugapenetan hartuko litzatekeelarik
 okorraren gaia, beraz, ez litzateke existentzia gabeko
 la kontsideratu beharko baizik eta existentzia baldintzez
 ratua bezala.

Bestalde Lloydek nolakotasunaren eta predikaduaren arte-
 ta ondo ez egitean kokatzen du errealisten akatz nagu-
 za bereizketa honek, gauzateriaren eta pentsamenduaren
 ga eta pentsamenduaren edukiak predikaduak egitea dakarre
 jota sujetu logikoa onartuko bait luke, Aristotelesen
 io platontzaile bat bilduko luke. Baina ez da horrelako-
 Aristotelesengan. izan ere predikazioaren dotrina kate-
 inan azaltzen bada, eta honetaz ez dago zalantza handi-
 argitasunez dago frogatua Ackrillen itzulpen eta komen-
 egorien sailkapena gauzen eta ez kontzeptuen sailkapena
 predikazio oro gauzei menperatua eginaz. Predikadua,
 ere esan nahi izatean gauzetaruntz bultzatua dago, lehen
 honetako 3.º puntuan, adierazi dudan bezala eta gauzeta-
 nolakotasunak adieraztean, sujetuaren nolakotasunak, zer-

tuko da, horrela sujetu logikoa ere herrestatuz, baldin eta hau, bi garren izatasunean sortu dugun orokorraren eta eraren arteko etenean, ez ba zen oraindik erreál bezala kontsideratzen.

Predikazioa, hortaz, nolakotzailea ez adimen hutsezko operazio bezala ulertu beharko da eta bere lehen sujetuan adimenezko banagarri bat bereiziko du.

c) Azkenik era eta era bankoaren arteko etenaren desegokitasuna azpimarratu nahiko nuke azaldu diren bi punturen oharketaren bidez, zeintzu, nahiko bilakatuak geratu direnez, ez ditudan zehaztuko gehiago. Lehena, era hutsaren eta konposatuaren ulerkuntza desberdinak daudenez, horrela era = adigarria, eta konposatua = existentea berdinkaketak ukatuz, konposatuaren era adigarri bat egon beharko lukeela atera beharko genuke, honek, jakina, eraren anitztasunera ginderamatza keelarik, baina eren ezingo da anitztasuna sartu, ^{bere} koppruzko batasuna eta banakako existentzia ekarriko bait ligu ke. Bigarrena, honen osagarri, predikatuaren onartu dudan ulerkuntza nolakotzailean letzake, izan ere, nolakotze horiek era existentziaren hesparruan sartzen du atxekitzen den bakoitzean bere osotasunean izan beharko delarik baina biderkaketa suposatu gabe. Era konposatu bakoitzean emango da edo, hobe esanda, konposatu bakoitzean bereizi ahal izango da.

J. Willeminek orokorraren jarrera errealista bat defendatzen du, kontzeptualismoa akzidenteetara murriztuz baina eksklusiba hau ere problematikoa izango litzateke, zeren abstrakzioak aipatu dugun

existentzia baldintzen gabeketa besterik ez ba du suposatzen, hau eran ere eman zitekeela ikusi dugu, eraren ikerketan, baina hemen kontzeptualismoak azpian datzanaren gabeketa esan nahi du gehiago; "gizon" atxekitzean, azpian datzan zeozer, beti berarekin azpian etzate horretan berberatzen den zerbaiti atxekiko diogu, bere sujetua azpian etzate horretan orokorrarekin berberatuko da, baina "txuri"-rekin ez da gauza bera gertzatzen, "txuri" gizonen baitan emango da baina ez dira "azpian etzatean" berberatuko, izan ere, "txuri" gizontaz edo, hobe esanda, azalaz banatzean, abstrakzio operazio baten bidez inolako izatasunez gabetua utziko dugu. Beraz hemen abstrakzioa ez da ulertu behar bakarrik existentzia baldintzez gabetutakoaren gogarketa bat, baizik eta azpian etzateaz ere gabetutakoaren gogarketa bat, hau da, lehen sujeturik gabekoaren gogarketa bat, azken batean bere lehen sujetua bera ez beste zeozer izango litzateke, nahiz eta adimenean sujetu bezala tratatzen den.

Dena dela, arazoa errerealismo - kontzeptualismo dikotomian planteatuta ez bakarrik orokorren bentakotasuna baizik eta, akzidenteen agerpenak konkretutzat jotzen baditugu, akzidenteen nolabaiteko bentakotasuna defendatu beharko dugula deritzot, baina arazoa gehiago planteatu beharko litzateke ikuspegi esanahitzaila edo semantizista batetatik. Ez naiz hemen luzatuko puntu honetan baina esanahiak, Aubenquek definitzen duen mugimendu horretan, hau da, bere mugimendu errerealitatean duen mugimendu horretan, izan beharko luke gauzen eta pentsamenduaren arteko arazo honetan erabakitzaila eta batik bat

esan nahi izateak hizkuntz funtzio bakoitzean hartzen duen esan nahi era desberdina. Halako ikuspegi bat ispiluaren metaforaren eta pentsamenduaren eta gauzen arteko paralelotasunaren aurka joango litzateke pentsamenduaren gauzekiko jarrera prospektiboago bat egokituz, honela izatasunaren murriz ezineko iluntasunerako (obscurité irréductible₍₂₀₎) bidea urratzen joan lahal izateko.

EZAGUPENA ETA HIZKUNTZAREN EGITURAK

SARRERA

Nere helburua lan honetan ezagupenaren gaiaren zehazpen bat egitsa da baina, batez ere, beste bi lanen hildoari jarraituz, bera hizkuntzaren egiturek mugatua edo hizkuntzaren egituratan isladatua den neurrian. Hemen, horretarako, ez dut hitz soilen ikuspegia jorratuko, baizik eta, ezagupera hizkuntzaren egitura konposatuetan adierazten denez, egitura predikatzaila izango dut ikusmiran.

Abiapuntua Aristotelesen "gurekiko" eta "berarekiko" ezagupenaren bereizketa, zenbait lekutan azaltzen dena, hartuko dut honela ezaugarri nagusienak mugatuz. Ezaugarri hauetan oinarriturik hoiak noia edo hala bete dezaketen gaia edo gai hoiak adierazpideak mugatuz joango naiz, aipatutako egitura predikatzaila horri begira; honetan sujetuaren funtzioak bereganatuko duenez gai hori birraurkezteko erantzukizuna, sujetua, eta bere era desberdinak, izango dira ezaugarri hoiak jasotzaile ala ez jasotzaile bezala gogartuko ditugunak; ikusiko dugun bezala sujetutasunak, era desberdinetan gauzatzen den neurrian, egitura predikatzailaren erak ere desberdindu diko ditu, sujetua azalduko bait zaigu, ezagupenaren ezaugarriak jasotzen dituenaren arauera, egitura predikatzailaren aldatzaile eta, azken batean, ezagupen gaiaren mugatzaile. "Gurekikotasun" eta "berarekikotasun" bereizketa ez da bada, hortan, subjektibotasun eta objektibotasun bereizketa bezala ulertu behariko eta ezta ere, halaber, gaiaren maila desberdinen arteko bereizketa bat bezala

baizik eta gehiago ulertu beharko da sujetuaren baitango, eta, beraz,
hizketa predikatzailaren baitango, bereizketarako irizpide bat,
hizketa horrek, sujetua mugatzen duen neurrian, ezagupen maila bat
emango digularik.

I

GUREKIKO EZAGUNGARRIA ETA BEREZ EZAGUNGARRIA

Aristotelesek zenbait pasartetan gurekiko ezagungarrienaren -(γνωσιμώτερον περὶ ἡμῶν) eta berez ezagungarrienaren (γνωσιμώτερον καθ'αυτό) arteko bereizketa ezartzen du (1).¹ Gurekikoaren ezagupena, ezagupen errezena, pentsakera arrunt bati legokioke bere hitzetan, sentipenen informazioei hestutuko litzaiokeena eta, beraz, emana problematizatu gabe onartuko lukeena.² Baina halako ezagupen bat denboran eta espazioan ematen denari lotuta dagokio eta ez liguke zilegiko ezgupen^a irmo bat, gure gauzekiko oraingo sentipenari menperaturikoa baizik.³ Izan ere sentipenaren ezgupenak banakoaren berri ematen digu baina honek aldaketa etengabe batetan dirauenez ez du mugarik izango edo ez, behintzat, denboraz eta espazioaz atetiko mugarik. Aristotelesek halabeharri (τῆς τυχούσης) (2) loturiko ezagupen hau gainditzeko, edo honen gainetik, ezagupen zehatz eta rigoroso (ἀκριβοῦς) bat ezarri nahi du, denboraren eta espazioaren baitan ematen denaren aldakortasuna saihestuko duena.⁴ Honetarako lehen urratsa "gurekiko ezgungarria" eta "berez ezagungarria" bereizketa izango da baina bigarren baldintza bat ere bete beharko da: bi ezagupen mota hauen gaien zehazpena alegia.⁵ Sentipenari dagokionez bera banakoaren ezagupenaren bideratzailea izango zaigu, banakoa izango da bere gaira eta berearekiko eman beharko litzateke zientziak beharrezkoa duen "bat banakako" harremanketa.⁶ Baina gai hau denborak eta espazioak ezartzen dizkion mugapenek eratzen dutenez

eta, esan dudan bezala, aldeketa etengabe batean dirauenez, mugapen aniztasun baten iturri izango da eta bat banakako harremanketa be-
 ra ere problematikoa bihurtuko litzateke, sentipenak atzematen duen
 batasuna aniztasun baten batasuna bait litzateke. Bestalde zientzia
 harremantzaila bat bezala ezagarritu dugunean harremanketa hau eza-
 gumenetik gauzataruntz abiatuta bezala ulertu dugu, gauzak ~~ei~~herga
 iraungo lukeelarik bere ezagupenarekiko, baina sentipenean gauzeta-
 runtz abiatze hori baino gauzetatik sorturiko inpresioa jasaten da
 eta era horretan gure sentipen hoietara murrizten dugu, gauza guk
berataz ditugun sentipenak izango litzateke, berak berez dituen e-
zagarririk ostenduz. Gurekikotasun hura ezagupen mota honekin iden-
 tifikatu beharko genuke zentzu honetan zientziaren ukapena izango
 litzatekeelarik.

Hemen, beraz, ezagupen sentigarriak bere mugekin egiten du
 topo batez ere gaur "gurekikotasun" horretara murrizten duen neurrian.
 Arazoai irtenbidea emateko eta azken batean ezagupen sentigarri be-
 ra funtsatzeko gaiaren ezagulearekiko autonomia bideratuz, ezagupe-
 nak kath'autoa hartu beharko du gai bezala edo gauza batetaz kath'
 auto esan daitekeenaren zehazpena. Gauza kath'auto dena, bere bai-
 tan dena, ^{da}ezagupenaren bidez erdietsi behar duguna. "Berekikotasun."
 honekin batera bigarren baldintza bat agertuko da testu hoietan eza-
 gupenaren gaia zehazteko, aurrekotasun-ondokotasun harremanarena ale-
 gia, izan ere, ezagungai denaren informazioa jasotzen dugunean, ma-
 hai bati buruzkoa adib., sentipen hutsei murriztuko bagintzaizkia

ezingo genuke bereizi zer den lehenago, bere lau hankak, egur kolorea, gaineko azala, ... baina sentipenezko ezagupen hori ezagupen baldintzatu bat da, sentipen guztiok heuren baitatik kanpo dagoen zozter behar dute oinarrituko dituzena, sentipen hoiien iturri izango dena. Guk bilatzen dugun ezagupena berriz ez baldintzatuarena izango da, gauza berez atzeman beharko duenez gauza bere baitan denara heldu beharko du eta hau sentipen guzti hoietikiko lehena dena izango da. Eta hirugarrenik aurrekotasun hau bakujean, §1206-ean bilatu beharko dugu. Ezagupen ororen gaia, ezagupen ororen aurrekoa eta berez ezagungarria dena bakuna izango da, bakunaren bidez bakarrik lortuko dugu "gurekikoa" areagotzea gu eta kanpoko munduaren arteko lotura bideratuz. Hau honela formulatuko nuke: guk erdiets dezakegun eta berez ezagungarria dena bakuna da.

II
BAKUNAZ

Azaidu berriak ditudan testu hauetan, bada, ezagupenaren lehen gaiari hiru ezaugarri erantsi zaizkio kath'auto behatzea, aurrekotasuna (beste mugapenekiko) eta bakuntasuna, hirurak nolabait sinonimo edo, behintzat, izatearen mugapen beraren hiru saihets edo soziali izango liratekeelarik. Parekotasun hau ondoan aipatuko dudan testu honetan nabarmenki azaltzen da:

"Adimena adigarriak higitua da, eta berez(καθ'αὐτὴν) adigarria bi sailetatik bat da eta hauetatik lehen(πρώτη) izatasuna da, eta izatasunetatik bakuna (ἄπληρη) eta egitez dena. (Baina bata eta bakuna ez dira gauza bera, "bat"-ek neurria esan nahi du eta "bakun"-ek gauza bera nolakoa den)." (3)

Izatasun bakuna izango da, beraz, ezagupenaren lehen eta berezko gaia. "Haplos" terminoari dagokionez lehenago ere jo behar izan dugu bere-tara izatasuna zehaztu nahi izan dugunean, adimenezko banangarritasunaren ondorio bezala eta banakoari kontrajarria agertzen zitzai-gularik. Hitza bai deklinatua, testu honetan bezala, bai adverbio gisa azaltzen da han eta hemen eta 'bakun zentzuaz beste orokor edo abstraktu adieraz ere agertzen da (4) eta baita ere erabateko adieraz , baina adieraok bat^asun batean ulertu beharko dira, izan ere ezagupenaren lehen gaiari dagozkion ezaugarriak besterik ez bait dute adierazten.'

Baina hemen lehenago egin dugun bakuntasunaren aipamen horre

tan ohartu dudan puntu batetan emandako iritziak ugaritu nahiko nituzke ² liburuko aipamenetik abiatuz: "Baina bata eta bakuna ez dira gauza bera," esaten digu. Hemen, beraz bakuntasunaren eta batasunaren artean bereizten du azken honek neurria adierazten duen heinean. Hau, bereizketa hau, dena dela, zehaztu beharko litzateke pittin bat batasunari buruz ¹ liburuan ematen dituen argibideak kontutan hartuz; bertan batasuna neurri bat bezala kontsideratzen du ⁽⁵⁾ baina neurria izate hau ez dagokio bakarrik kopuruari baizik eta baita ere nolakotasunari eta beste kategoriei ere. Hau ² liburuko aipamenarekin kontraesanean egongo litzateke batasunari buruz zehazpen gehiago emango ez balu, ^{ber} ~~baina~~ ^{du} ¹ liburuan bertan, "bat" en berezko eta ez akzidentezko (¹ liburuan eman bait ditu) zentzu ezberdinak eman ondoren bere definizio bat emango ez balu:

"horregatik" bat" en zertasuna zatiezina izatea ^{izatez} da, hau eta banako bezala edo lekuari, dagokionez edo espeziari edo pentsamenduari dagokionez banagarria, edo baita ere osotasun zatiezin bat izatea, eta batez ere genero bakoitzaren lehen neurria izatea, bereziki kopuruarena, kopurutik beste generuetara zabaldu bait da." ⁽⁶⁾

Hemen beraz zatiezina eta zeozer banandua izatea izango dira batasunaren ezaugarriak baina baita ere neurri izatea, baina neurri izate hori kategoria guztiei egokituko zaio, hizkuntzari eta ezagupen mota brrori zegokion bezala; hemen berriro banagarritasun eren . be-

reizketa ezartzen zaigu. Zatiezintasuna izango da neurketa ororen aurrebaldintza eta zatiezinak izango dira bai kopuruzko batasuna bai nolakotasunezkoa, horregatik ezan ahal izango dugu bakuntasuna batasun bat dela: "kasu guztietan neurri bezala batasun bat eta zatiezina den zerbait bilatzen da; eta hau bakuna da bai nolakotasunarekiko bai kopuruarekiko." (7). Baina aipaturako λ liburuko zatian banagarritasunean edo zatiezintasunean bereizketa egin nahi du. Kopuruzko zatiezintasuna fisikoa da eta gaia anizkun bezala behatzen du baina bakuna adimenezko zatiezintasun bat izango da, aniztasunari kontrajarriko zaiona. Izan ere "haplos" hau "tode ti"-ari eta konposatuari oposatzen zaio Aristotelesen testutan, batik bat orokorrarekin parekatzen den pasartean, non egurra eta kutxa orokorki hartuak egur eta kutxa mugatuari oposatzen zaizkion. (8). Batasun honek eta "tode ti"-ari oposatze honek bakuna "tode ti" direnei dagokien denboraren baitango aniztasunetik kanpo uzten du; denboraren baitango atxekipen aniztasuna galtzen da; Hintikkak dioen bezala " "haplos" is often used by Aristotle to indicate the absence of temporal qualifications that would limit the scope of a statement to some particular moment or interval of time." (9)

III

"S P da" EGITURAZ

Platonek bere ideien mundua nolakotasunaren sujetu bihurketan oinarritu zuen, heuren izango liratekeelarik lehenak bai existentzian bai adimen mailan; adimenezko eta izatezko lehentasuna bat eginez. Honek logikaren ikuspegitik sujetuak eta predikaduak berberatzea zekarren ondorio bezala. Aristotelesek hizkuntza eta pentsamendua ezintzen zuen berberaketa hau gainditzeko sujetutasunaren eta nolakotasunaren artean bereizketa ezartzen du, alegia, hizkuntza oinarritzeko behar dituen bi egiturak. Sujetuak bere lehentasunean existentzia adierazi beharko du eta hau "tode ti"-aren adierazpenaren bidez, hau da, ezertaz esaten ez denaren bidez, edo "Kategorietako" terminologian, lehen izatasunaren adierazpenaren bidez bideratuko da; honekin erreferentzia zuzena, ararteko ga-bea lortuko dugu, sujetu konkretua ezarriko, baina honek jarrera nominalista huts batetara bultzatuko gintuzke, nola edo hala Antistenesen jarretara (10). Honek inarduna bakarrik konposatuarekiko ikustan zuen zilegi eta kasu honetan ere bakarrik bere elementuen zehaztatze bat besterik ez litzateke izango; bakunetaz, berriz, izendatzea besterik ez zen zilegi edo, gehien jota, adierazpen analogatzaile bat eman ahal izango litzateke nolakoa den esanaz; zilarra eztainua bezalakoa da, adib.

Baina sujetu honi dagokion lehentasuna existentziazkoa izango da bakarrik eta "haplos"-ak bereganatuko du, aldiz, adimenezko

lehentasuna, izan ere, honek Z liburuan "Kategorietan" banakoari zegokion "lehen izatasunaren" maila bereganatzen bait du. Baina bakun hori nolakotasun bat izango da eta beti. "sujetu batetaz esaten den zeroer"; predikatu bat, beraz; arazo honen irtenbidea "haplos"-a sujetu logiko bihurtzea; ^{da} horrela existentziari dagokionez nolakotasun bat, menpeko bat, dena adimenean lehen bat, sujetu bat, izango delarik, gaiaren predikazio definitzailea bideratuz. Bigarren sujetu honek gaia zuzenki adieraziko ez duen arren, izatasuna izango ez den arren, bere esanahia izatasunari zuzendua joango zain, era edo "ti en einai"-a adieraziz. Baina bigarren sujetu hau ere ez da nahikoa izango zientzia iharduna oinarritu nahi izanez gero. "Kategorietan", 2. atalean, izakiak ($\Gamma\Omega\upsilon\ \delta\upsilon\tau\omega\nu\ \dots$) "zerbaitetaz esan" irizpidez ^{eta} beste "zerbaiten baitan izan" irizpidez sailkatzen dituzte lau sorta eginaz:

		esan	
		+	-
izan	+	+ kolorea	- zuzentasun hau
	-	+ gizon	- gizon hau (Sokrates)

(11)

Sailkapen hau ez da izakien sailkapen hutsa izango, predikazio eren sailkapen bat ere baino. Koadroa ezkerretik eskuinera hartzen badugu eskuinean sujetu konkretuak, banakoak eta beste ezertaz esaten ez direnak geratzen zaizkigula ikus genezake eta ezkerrean sujetu batetaz esaten direnak, konkretu hoietaz esaten diren gauzak. Predikazio mota hau nahiko funtsatuta egongo litzateke eman dudun azalpenarekin baina koadroa goikoan eta behekoan artean ebaki

ko bagenu, hau da, ez "zerbaitetaz esan ez esan" irizpidearen arauerara, "zerbaiten baitan izan ez izan" irizpidearen arauerara baino, hau ez dagoela nahiko funtsatua nabarmena da, izan ere, irizpide honen bidez ez bakuna, nahasia baino adierazi nahi bait da. Baina predikazioa edo "S P da" egituraren bidez ez bakarrik bakuna, baizik eta nahasiaren adierazpena oinarritu beharko da.

Koadroko ezkerretik eskuinerako zatiketean, banakoen eta orokorren arteko zatiketean alegia, "gizon hau" edo "Sokrates" geneuzkan banako edo sujetu bezala, eta orokor, "haplos" edo sujetu bate-taz esaten zena bezala "gizon", eta biokin honako proposizioa osa genezakeen:

- 1) "gizon Sokratesetaz esaten da" edo
- 2) "Sokrates gizona da"

Sokrates sujetu konkretua izango litzateke eta "gizon" predikadua, baina halaber sujetu logikoa edo definiziorako bidea emango lukeen sujetua. Eta berdintsu egin ahal izango genuke "zuri" konkretuarekin eta kolorerekin. Baina ezin izango genuke irizpide bera erabili goitik beherakako predikazioa oinarritzeko, ezin izango genuke konkretu bat beste konkretu batetaz esan eta ezta ere orokor bat beste orokor batetaz biak sustatibo bezala hartuz gero

- 3) * "Sokrates zuritasun hau da" edo

4)* "Gizona kolorea da"

gaizki osatutako "S P da" egituraren aplikazioak izango liratake, ez lukete zentzurik izango eta hauen orde zera esan beharko genuke:

5) "Zuritasun hau Sokratesen baitan (ematen) da =

6) "Sokrates zuria da"

7) "Kolorea gizonaren baitan (ematen) da" =

8) "Gizona koloretua da"

Oharu behar da 3-n nahiz 4-n sujetua nahiz predikadua sustantibo direla eta sustantibo bat sustantibo bati atxekitzea bakarrik bakuna₂ dihardugunean dela zilegi, hau da, 2-n edo predikazio orokortzailean, beraz, edo 5 eta 7 egiturak erabili behar dira, izan aditzari lekuzko zentzua erantsiz edo 6 eta 8-n bezala sujetu adjetibu erara itzultzen dira "koloretu" eta "zuri"-k hemen adjetibu eta ez sustantibo bait dira.

Baina gizona kolorearekiko ez dago bakuna orokorrarekiko zegoen harremanketa berdinean; 6 eta 8-k itxuran 2-k duen egitura bera du^{1e} baina 2-n bakuntasunean irauten dugun artean 6 eta 8-k sujetua anitzatasunean murgiltzen dute; beste hitz batzutan 2-k izatasunezko predikazioa den artean 6 eta 8 predikazio akzidentala izango dira. Beraz, hemen sujetua ez da ez konkretua ez sujetu logikoa

izango edo ez behintzat "S P da" egitura hori ezagutze zientifikoa-
ren adierazle bezala ulertzen badugu, sujetu konkretua izen propioen
erreferentzia zuzena bait zen, eta, beraz zientziaz kanpo geratzen
zen, eta sujetu logikoak, bakuna denez, ez du balioko predikazio hau
oinarritzeko.

IV

AKZIDENTEZKO PREDIKAZIOAZ

Goiko koadroan emandako sailkapena ez da Aristotelesen lanetan gehiago agertzen. "Sujetu batetaz esan ez esan" formula agertzen den arren, bigarrena, "sujetu baten baitan izan ez izan" ez da gehiago agertzen horrela formulatua behintzat, baina honek ez du esanahi adierazten duen ideia desagertzen denik. Bada Z liburuan maiz agertzen den expresio bat honen kidekotzat jo daitekeena: ὑπέχειν

71 delakoa. Dagoeneko Z13-n ematen duen izatasunaren definizioan honen ukapena agertzen zaigu definizio horren ezaugarri bezala:

"Lehenik, gauza bakoitzaren izatasuna gauza bakoitzarena berez dena eta beste ezerezi ez dagokiona (οὐχ ὑπέχει ἄλλω) da."

"... Gainera izatasun sujetu batetaz esaten ez denari (τὸ μὴ -καθ' ὑποκειμένου) deritzo ..." (12)

Bigarrenik ematen den ezaugarria kategorietako hitz beretan agertzen da hemen eta, halaber, Z3-n edo beste zenbait pasartetan, baina lehenengoari dagokionez hiru esapide erabiltzen dituela ikus dezakegu, zeren "Kategorietan" "zerbaiten baitan izan ez izan" diotenean Z3-n "hau zeraz eta banagarria" dio eta hemen, aldiz, "beste ezerezi ez dagokiona". Lehenengo esapidea predikaziozkoa delako ideia azaldu berria dugu baina beste biak, ontologiako tratatuan dauden neurrian, balirudike gauzateriari dagozkiola baina hemen azaldu na-

hiko nakeena zera litzateke: hiruek errealtate bera adierazten dutela eta errealtate hori heuren baita eta ez inoren menpeko di-ren gauzen adierazpen denez, izatasunena alegia, heuren ukapenak, hau da, "hau zerau eta banangarria" ez izatea edota "hyparjein"-a eta "zerbaiten baitan izatea" biok zentzu baieztakor batean, akzidentearen adierazbidea direla. Urrengo lerrotan, dena dela, beste esapideak nola edo hala aztertu ditudanez eta baita ere, nere ustez, esapide horietan nabarmenkiago ikusten delako akzidente izaera hori, "hyparjein"-aren azterketari lotuko natzaio hestukiago.

"Hyparjein" aditzak grekeraz (13), beste esanahi batzuren artean, izan, existitu, eman; -rena izan, -ren aldeko izan; gertatu, jazo, aurremana izan, esanahaiak hartzen ditu. Hemen nabarmendu behar da, errozko zentzua jasotzera jotzen badugu, adierak nagusiki gertakari edo existentzia biltzen dutela, hau da, gauzate-riari edo agerkarien munduari dagokion harremanketa baten adierazle dela. Bestalde, Aristotelesek berataz egiten duen erabilera zehatza kontutan hartuz, eta oharrarazi behar dut batez ere Metafisikako 2 liburuz dihardudala nagusiki, hizkuntzako bi ohar gaineratu behar zaio esanahiarenari: 1) "haplos"-i oposatua bezala agertzen dela, hau da, sujetu logikoari edo definizioaren sujetuari. 2) Ez dela harremanketa hori adierazteko erabiliko duen esapide bakarra, beste zenbait ere erabiliko bait ditu; hauek bi sailetan bilduko ditut; agerizko mundu hutsari dagozkionak eta hizkuntzako

harremanketa isladatzen dutenak; lehenengoan artean $\tau\acute{o}\delta\epsilon \acute{\epsilon}\nu \tau\acute{\omega}\delta\epsilon$ (1030b18, 1036b23), $\epsilon\pi\iota\chi\iota\chi\nu\omicron\mu\epsilon\nu\alpha \epsilon\pi\epsilon\tau\eta\epsilon\omega\nu \tau\omega \epsilon\iota\delta\epsilon\iota$ (1036a31) eta bigarrenen artean $\acute{\alpha}\lambda\lambda\omicron \kappa\alpha\iota \acute{\alpha}\lambda\lambda\omicron\upsilon \lambda\acute{\epsilon}\gamma\epsilon\tau\alpha\iota$ (1030a4), $\kappa\alpha\iota \acute{\alpha}\lambda\lambda\omicron - \lambda\acute{\epsilon}\gamma\epsilon\tau\alpha\iota$ (1031b13), $\kappa\alpha\iota \acute{\alpha}\lambda\lambda\acute{\eta}\lambda\omega\nu \lambda\epsilon\gamma\omicron\mu\acute{\epsilon}\nu\omicron\iota\varsigma$ (1041a33) eta $\delta\iota\omicron\epsilon\acute{\iota}\chi\epsilon\iota\nu - \delta\gamma\iota \tau\acute{\alpha}\delta\epsilon \tau\acute{o}\delta\epsilon$ (1041b1).

Esanahiari gagozkionez, beraz, agerkarien harremanketa mota bat adieraziko du "hyparjein" aditzak, eta "haplos"-ari oposatzen zaion neurrian, hitz honek zuen zentzu logikoa harturik, hizkuntzaz ko egitura bat adierazi beharko digu; hau egiaztatzen da bere sinonimo bi mota hoiekin. Baina ze elementuren harremanketa eta ze errealitatearen adierazpen izango dira bata eta bestea?

"Haplos" delakoarekin eta berak ezartzen zuen sujetu motarekin, sujetu logikoarekin, egitura predikatzaille mota bat funtsatu digu, predikazio definitzailea alegia, baina sujetu hau ez nolakotua izango da: edo, hobe esanda, ez du denboraren eta espazioaren baitango nolakotasunik; jasoko duen nolakotasuna denboraz kanpotiko mugapen bat izango da eta izen orokor bat bezala atxekiko da. Atxekipen hau, kategorien dotrinari dagokionez, kategorien barneko atxekipen bat izango litzateke eta ez litzateke egongo ketegoria batetik beste bateruntzako nahasketarik; ez litzateke kategoriatik kanporaketa bat egongo. Baina sujetua here baita ez izateak, "beste zerbaitena izateak" bestelaketa bat dakar, beste zeozertara jo beharra eta sujetuan bere kanpoko mugapen bat sartu beharra. Kanpoko mugaketa hau ez litzateke dagoeneko kategoriaren baitango atxe-

kipen bat izango, ez litzateke orokorketa bat izango, haatik, su-
jetuaren iraunkortasunari ez legokiokkeen mugapen bat izango litzate-
teke, eta, beraz, denboraren barruko atxekipen bat, eta kategorien
arteko nahasketa bat. "Hypanjein" harremanketa hori gertatzearen es-
pazioaren eta denboraren barruan emango litzatekeen harremanketa
bat izateaz beste hizkuntzazko egitura batean isladatuko litzateke;
"zerbaiten baitan izan" irizpidetik sortzen genuen egitura predika-
tzaille horretan alegia.

Hemen sujetua ez da dagoeneko ez sujetu konkre-
tu bezala kontsideratuko, hau izen propioen erreferentziatzat eta
kopuruzko batasuntzat jotzen bait genuen, eta ezta ere sujetu logi-
ko bezala, bakuntasuna eta ez nahasketa aurrematen bait zen, hemen
sujetu^a predikazio batena izango da baina ^{nah} atxekitzen denean nahaske-
ta bat, anitztasun bat, sortzen da. "Hypanjein"-a bi egiteren arte-
ko harremanketa objektiboren ^a adierazpena izango litzateke orduan, bi
egite hoietatik b_ata sujetu eta bestea adjetibo bat izango litzate-
keelarik. Adjetibo horiek, jakina, orokor bezala joan beharko luke,
ezin izango bait genuke konkretu bat beste konkretu batetaz esan,
baina ez litzateke izango sujetuarekiko orokor bat baizik eta su-
jetuaz beste kategoria batetako orokor bat. Predikazio honi legokiok-
keen sujetua existentzia baldintzen mugapenetaz hornitua gogartu
beharko genuke eta aipatutako sujetuen aurrean existentzia sujetua
deituko dudana azalduko litzateke.

Akzidentezko predikazio mota honekin honako arazo hau sortu-ko zaigu: berezko ezagupena ezarri dugunean berehala sortu zaigu honen eta bakunaren sahiets ezineko lotura, gauzaren ezagupen zehatzena bakuntasunaren ezagupena izango litzateke eta, gainera, bakuntasunaren ezagupen horretarako predikazio orokortzailea, definitzailea, ezarri dugu; esan nahi al du honek akzidentezko predikazio hau ezagupenetik at geratzen dela edo gurekiko ezagupen soilari dagokionik? Ezagupena bakarrik bakunarena balitz, "haplos"-arena, honekin Aristotelesek ezagupenerako behartzen duen baldintza bat beteko genuke, aurrean dagoena areagotzea, baina bakuntasun huts horretan geratuz gero ezin izango genuke ezagupen hau sentigarriarekin lotu, hau da, gure ezagupen ororen sorburuarekin eta ezta, azken batean, agerkariak funtsatzeko berak duen helburuarekin. Gainera, bestalde, bai Platonek bai Aristotelesek defendatzen duten filosofoaren, ezagutzaaren, lan bera ukatuko luke. Izan ere, Platonek "Sofista" elkarrizketan filosofariari izenbatzen dion lana zeintzu gauza zeintzurekin nahas litezkeen eta zeintzu zeintzurekin ez izango litzateke (14) eta Aristotelesek ere ideia bera jasotzen du egiaz ematen duen definizioan (15), zeinari elkartzeko bat edo nahaste bat dela deritzon, gauzen biltze hori ez dagoenean egiaz egongo ez delarik. Bakunaz ezagupena ez litzateke, bada, egiazaren eta faltsuaren arteko hesparruan egongo, izan ere, ez litzateke hauetaz errurik egongo, baina ezagupen intuitibo bat emango liguke eta beraz ezagupen tautologiko bat.

Guzti hau eskematikoki honela laburtuko nuke:

1) Ezagupena berezko gaiaren ezagupena izango da, aurrean ez dagoenarena eta iraunkorrena. Hau bakunaren ezagupenaren bidez erdietsiko dugu.

2) Ezagupen horretarako tresna logikoak sujetu logikoa eta predikazio orokortzailea, definizioa, izango dira. Hauen ezagupena ez da ez egiazko ez faltsua izango, tautologikoa baizik.

3) Baina Aristotelesen helburua gertakarien mundua, mundu sentigarria, eta bere ezagupena funtsatzea da. Honek ez bakuntasuna, nahasketa, biltzen du.

4) Arlo honen mugapenak hitzetan adierazteko existentziazko sujetua eta akzidentezko predikazioa, adjetibozkoa edo nolakotasunekoa, dira ditugun tresnak eta kategorien arteko nahasketa bat suposatzen dute. Gortuko diren saloak egiazko ala gezurrezko izango dira.

Beraz, erabaki beharko dena da zeintzu baldintza eman behar ko diren akzidentezko predikazio mota, berezko eta ez gurekiko ezagupena bihurtzeko edo, beste hitz batzutan, nola lotu ahal izango den predikazio orokortzailea funtsatu nahi duen gertakarien munduarekin edo sujetu logikoa existentziazko sujetuarekin.

V

HIZKETA ZIENTIFIKORAKO BI BIDE

Bi predikazio motaok bi gai mota eta ezagutze zientifiko bi bide edo metodo mugatuko dute. Gaiari dagokienez lehenago aipatu dudan "Bigarren Analitikoetako" bigarren liburuko lehen atalean gaiaz lau galdera ezarriko ditu: "to hoti", "to dioti", "ei esti" eta "ti esti" horrela hizkuntza zientifikoari urratu behar dituen gaiaren azalaz mugatuz. Lau galderaok, jakina, gauzateriari buruzko galderak izango lirateke, eta batik bat ezagupenaren gai zehatzari buruz, eta gauzari egokituriko erantzun bat beharko dute, galderen arauerara desberdindutako erantzunak alegia. Erantzunok zehazteko, galderarekin bakanarekiko ala nolakotuarekiko edo kategorizatuarekiko diren irizpidez baliatuz, binakaketa bat sartuko genuke honen onorioz bi hizketa edo adierazpide azalduko litzaizkigukeelarik; alde batetik "ei esti" eta "ti esti" direlakoak bilduko genituzke, bakuntasuna izango luketenak mutur bezala eta nolabait galdera logikoak izango liratekeenak, eta bestetik "hoti" eta "dioti" direlakoak, konposatua eta nolabait existentzia adieraziko luketenak. Lehenengo galderen adibide gisa "Bada gizonik?" edo "bada triangelurik?" "ei esti"-arentzat eta "zer da gizona?" edo "zer da triangelua?" "ti esti"-arentzat esapideei dagokienez "gizona txuria da" edo "triangeluak hiru zuzen neurtzen du" erako erantzunak ordezkatu lituzke lehenak, "hoti"-ak, eta bigarrenak "zergatik da gizona txuria?" edota "zergatik neurtzen du triangeluak hiru zuzen?" motako galderak

ordezkatuko lituzke.

Galdera hauen erantzunek, eta batez ere zioaz direnenek, hau da "dioti"-ren eta "ti esti"-ren erantzunek, ekoizten duten bi hizketek edo adierazpideek eratuko dute -edo heurretan oinarrituko dira- ezagutze zientifikoaren bi bideak, definizioarena alde batetik eta frogapenarena bestetik, lehena "haplos"-aren adierazle izango litzatekeelarik eta bigarrenak konposaketa adigarri bat adieraziko lukeelarik:

"Esan dugun bezala, bada, gauza baten zer izana ezagutzea zergatik den ezagutzea da; hau horrela da bai erabateko eta besterik ezer ez dagokien gauzetan eta baita ere beste zeuzer dagokien gauzetan, esaterako bi zuzen neurtzea edo handiago edo txikiago izatea." (16)

Zientziaren gaia bi eratan ezaugarrituko da, beraz, erabatekoa, ἀνάωσ deritzona testu honetan ere, eta kanpoko mugapen bat jasaten duena, ἑὴν ὁμαχὸν τῶν deritzona, aipatutako bi hizketa moduak bideratuko dizkigutenak: definitzailea eta frogatzailea alegia; definitzailea "haplos" esaten denarena edo gogartzen denarena izango da eta nolabaiteko nahasketa, "hyparjein", duenaz ez da definiziorik egongo ⁱbaizik eta frogapena.

Bi bideok, nahasketarena eta, beraz, egiazko nahiz gezurrezko: saltoak azaltzen dizkiguna, eta bakuntasunarena, ezagupen intui-

tibo batetan oinarritzen dena, saloen baliotasunaren iraunkortasuna bermatzeko sujetuaren eta predikatuaren arteko loturaren beharkizuna exijitzen dute; bai predikazio definitzaileaz bai akzidentekoaz atxekitzen diren bi mugapenek beharrezko ezagupen bat osatu ko dute. Beharkizun horretaz Aristotelesen "Metafisikako" Δ eta Λ liburuetan ematen duen ikerketa semantiko baten bidez . hiru adierak bereizten ditu (17).

1) Bortxaz ala behartuta egiten dena.

2) Zerbait burutzeko premiazkoa dena, existentziaren edo bizitzaren aurrebaldintza dena: arrasa, botika hartzea gaixoarentzat, etab.

3) Beharrez horrela dena, horrela eta ezin bestela dena. Adiera hau, berak dioen bezala, beste bien biltzaile izango litzatekeelarik eta azkenok bere zehazpen bihurtuz.

Egitura predikatuarekin beharkizun hau izatearen zio bezala azalduko zaigu, sujetua beste zeozer izatearen zio bezala; sujetu bati zerbait beharrezkoan atxekitzen bazaio, lotura predikatuarekin beharrezkoa bada, sujetuak atxekitzen zaionera edo predikatu hori, orokortzaile nahiz adjetibo, bere izatean egite bezala izan behar ko du; hau da, sujetu bati zeozer beharrezkoan atxekitzen badiogu, sujetu horretaz ezeztatuz ezin dena atxekitzen diogu; atributu hori ukatzaile bezala eranstea sujetu bera ukatzea izango litzateke, izate horri ez izatea atxekitzea (identitate hastapena ukatzea). "Gizona ez da animalia" esatea "gizona ez da" esatea izango li-

tzateke. Hau, jakina, izatasuna salbatzeko aurrebaldintza bat da bai ikuspegi ontologikotik bai logikotik edo, hobe esanda, izatasunaren definizioari darraion ezinbesteko ondorioa, halako ukapen bat izatasunaren baitan kontreesana sartzea izango bait litzateke eta, azken batean, izatasuna ukatzea; Kategorietan zera bait dio:

"Izatasunei dagokie, halaber, heuren aurkako ezer ez edukitzea." (18)

Eta honek berdin balio du sujetuarentzat, honek izatasuna adierazten duen heinean ezingo du eta bere hizkuntzazko ukapena jaso.

Baina Aristotelesek beharrean den horretaz beste, beharrean gertatzen dena ere bereizten du. "Fisikan" (19) eta "Lehen Analitikotik" bereizketa hau beharkizun hipotetiko (ἐξ ὑποθέσεως) eta "erabateko beharkizun" hitzetan adierazten da (20). Erabateko beharkizuna bakunaren beharkizunari dagokio eta predikazio definitzailearen beharkizunaren adierazpen bat izango da; "gizona animalia da" tankerako saloen beharkizuna, baina beharkizun hipotetikoarekin gai konposatuari buruz hitz egiten dihardugu, konposatuaren edo gertatzen denaren beharkizunari buruz, hauek zientziaren, bai fisikaren bai matematikaren, gai diren neurrian. Hemen, beraz, predikazio orokortzailearen aipatutako beharkizunaren ondoan, konposaketa suposatzen duen predikazioaren beharkizuna definituko dugu eta adibideetan joaz "triangeluak hiru zuzen neurtzen du" edo "eklipsea ilar-

...tze bat da" direlako esaldietan gauzatuko litzateke.

...n ukapena gertakarien munduaren ukapen bat izango litze

...iaren existentzia baldintzei legokieke, ez definizio
edo baldintza logikoei.

...rkizunaren bereizketa hau, dena dela, ez da sailkatze

... bereizte bat, baizik eta proposizio motetatik atera-

...kontzeptu beraren bi erabilpide, hau da, gehiago izango

...proposizioek eta hauek adierazten duten sujetuaren eta

...en arteko lotura motaren ezarpen bat beharkizunaren

...reizketa bat baino; beharkizunak beti ideia bera adieraz

...z. Frogapenaren prozesu osoan, proposizio bakoitzean ale-

...aren eta prefikazioaren arteko loturak beharkizunaren

...gon beharko luke, nahiz eta ez derriozko izan, ondo-

... aplikazio bata ala bestea izatea. Izan ere, "Metafisika"-

...uan honela mintzo da Aristoteles:

...harrezkoa da frogapena aurreko batzutatik abiatzea, zer-

...atea eta zerbaiten frogapena izatea (2/.)"

...ekoak hemen axiomak bezala ulertu beharko lirateke, fro-

...gia izatasun bat eta frogatzen dena ezaugarri batzuren

...bakoitza bere proposizioan adieraziko litzatekeelarik

...bezala, beharrezko proposizio bezala.

...na, bestalde, beharrezko proposizio orok bere gauzareki-

ko harremanketan bete beharko dituen ezaugarri batzu jasoko ditu, nahiz erabateko beharkizuneko lotura bat ematen denean nahiz lotura hori beharkizun hipotetiko bat izan; ezaugarriok "Bigarren Analitikoetan" definituak etorriko dira eta καθὰ πάλιν, καθ'ἑαυτὸν eta καθόλου esapideei dagozkie (22); baina lan honetan orain eman behar duan urratsa akzidentezko ezagupena funtsatzea denez, ez naiz hiruen azterketan geldituko, baizik eta "kath'auto"-arenean bakarrik, izan ere, azaldu duan bezala bera izango bait da benetazko ezagupenaren lehen baldintza eta honetara murriztu beharko da akzidentezko predikazioa ezagupenaren gai bihurtzeko.

"Kath'auto"-aren honako lau adieraok ematen ditu Aristotelek:

- 1) "Berarekikoa, alde batetik, zer izanari dagokion guztia da, adibidez triangeluarentzat lerroa edota lerroarentzat puntua...
- 2) Gainera, beste sujetu bati dagokiolarik, sujetu hori bere zer izanaren definiziorako behar duen guztia, adibidez, zuzena nahiz borobila lerroari dagozkio, bikoitia eta bakoitia, ... zenbakiari ...
- 3) Halaber, beste ezein sujetutaz esaten ez dena, adibidez, ibiltariari dagokionez badago beste zeozer dabilena dena eta zuria-
rekiko beste zeozer zuria dena, izatasuna, ostera, eta hau zerau esan nahi duen oro, ez da bera denaz beste den ezer izango. ...
- 4) Baita ere, beste zentzu batean, gauza bati berez dagokio-

na da eta berez ez dagokiona akzidentea, adibidez, ibiltzean oinaztuak jotzen duela, akzidente bat da; ez bait du oinaztuak jotzen ibiltzearen zioz, haatik, batera gertatu direla diogu. Baina, ostera, zeozar berez gertatzen bada berarekikoa deritzogu, adibidez baten bat lepamoztuta; eta lepamozketarengatik hiltzen bada, lepamoztua izan delako hil dela diogu eta ez lepamozketa eta heriotza batera gertatu dela... (23)"

Lau adieraok azaldu aurretik oharatu behar den lehenengo gauza "kath'auto" esapidearen hizkuntzazko zentzia da; kath'auto deritzoguna ez da gauza, baizik eta bera eta bere predikaduaren arteko harremanketa. "kath'auto" horrek sujetu batetaz zeozar esatea biltzen du sujetu hori hizketa zientifikoaren mutur den neurrian, eta, berez, predikazio harremanketa bat sortuko da non sujetua eta predikadua beharrean lotuak egon behar duten, hau da, predikadua sujetuan beharrean eman beharko da eta, azken batean, sujetu berak mugatuko du bere predikadu hori (24)"

"Kath'auto"-aren lehenengo eren izatasunari dagozkion atributuak eransten zaizkio sujetuari; bere izate hutsaren lehen baldintzak, erreferentzia zuzena, ez tartekotua, adierazten dutenak, edo beste hitz batzutan izatasun bera esanahi duten predikadiak. Zirkuluaz bagenihardu "erdetik hurrintasun bera duten puntuak", triangeluaz "osatzen duten lerroak", gizonaz "animalitasuna" edo "arrazoi-

dun" ...; era edo orokor batetan biltzea suposatzen duten predikazioak. Hau, jakina, "haplos" esaten diren gauzekin bat izango litza teke.

Baina hau ez da zeozer "kath'auto" esatearen zentzu bakarra eta, beraz, ezagutzearen zentzu bakarra; espezieari legokiokeen kath'auto predikazioa ere sortzen da. Definitzen denari existitzean ezartzen zaizkion baldintzak ere nolabait "kath'auto" atxekiko zaizkio. Predikatzen denak hemen esanahi bikoitza du, alde batetik sujetua izango dute bere erreferentzia bezala, sujetua seinalatuko dute, baina, bestalde, heuren definiziozko esanahia ere izango dute, baina heuren defihiziozko esanahia ^{ez da.} sujetu haren bidez baino emango, hau da, sujetua izango da era batera predikatuaren sujetu eta, halaber, predikatu horren definizioaren elementua; eklipsea ilargiari atxekitzen zaio -ilargiaz esango dugu eklipsatua edo ez eklipsatua dagoela- eta eklipsearen definizioan ilargia sartuko da -eklipsea ilargiaren iluhtze bat da lurraren tartean jartzearen zioz- eta berdin gertatuko da bakoitziarekin eta bikoitziarekin edo zuzenarekin eta borobilarekin.

Hirugarren eta laugarren adierak nolabait lehenengoaren zehazpena izango lirateke, hirugarrena "tode ti"-aren izendatzearen operazioari legokioke eta laugarrena "kath'auto"-a eta akzidentearen arteko kontrajartzeari.

VI

GERTATZEAZ

. $\sigma\upsilon\mu\beta\epsilon\pi\eta\kappa\acute{o}\sigma$ da Aristotelesek bere lanetan zerbaiti, suj-
tu bati, gertatzen zaiona adierazteko erabiltzen duen esapidea; az-
pian datzanari hálabeharrez jazotzen zaiona eta berari egiatan atxe-
kiko zaiona (27), atxekitze edo predikatze hori $\kappa\alpha\tau\grave{\alpha} \sigma\upsilon\mu\beta\epsilon\pi\eta\kappa\acute{o}\sigma$
esapideaz adieraziko delarik. Bata nahiz bestea $\sigma\upsilon\mu\pi\delta\acute{\iota}\nu\epsilon\iota\upsilon$ adi-
tzaren eratorokinak izango lirateke eta gertatu edo jazo infiniti-
boan eta gertakari eta gertakariarekiko beste eratan itzul litezke
euskerara. Hemen, dena dela, latinetiko "akzidente" hitz teknikoaz
baliatuko naiz haren kideko bezala, baina beharrezkoa da oharraraz-
tea esapideekin ez dela ezein momentutan adimenezko mugapenik
adierazten, mugapen adigarri edo logikorik, baizik eta gertatze hu-
tsaren arloan finkatu behar dela bere esan nahia; hau da, akzidentez-
ko predikazioak beti gertatzen denaren, agertzen denaren elemen-
tuen arteko harremanjeta bat adieraziko digu, ez sujetuaren adime-
nezko edo mugapen logiko bat. Bi azal agertzen dira, beraz, akziden-
tean: predikatzailea eta gertakarizkoa.

Dharpenok alde batera utzirik eta, dagoeneko, Aristotelesen
testuetara joaz, berriro Δ liburuko hiztegitxora hain zuzen, hona-
ko hitzetan aurkitzen dugu definitua akzidentea:

"Akzidentē zerbaiti benetan dagokionari eta hartaz egia-
tan, baina ez beharrian eta ezta ere gehienetan, esan daitekeenari

deritzo." (26)

Akzidentearen lehen ezaugarria, hortan, zerbait zerbaiten baitan ematea izango da; akzidentearen ezagupena nahasketaren eta bakuntasun ezaren hesparuari gogokion ezagupena izango da eta, horren neurrian, egiaz ala gezurraz atxeki ahal izango zaio bere sujetuari, bera heusten duen sujetuari. Hemen predikazioak ez du sujetuaren eta predikatuaren arteko berberatasunik adierazten, izan ere predikatu hori ez diogu sujetuari . eranstean adigai bezala. Berarekiko atributua eranstean diogunean izatasun bera adierazten dugu, esan nahi dugu (semainein), baina akzidentea atxekitzen dugunean predikatu gertakari bezala, gertatzen den neurrian, predikatuaren existentzia, atxekitzen dugun arren, ez dugu sujetu hori adierazten edo, bestela esanda, ez diogu sujetuari predikatuaren ulergarritasun bidea edo adigai atxekitzen.

Testuinguru honetan ulertu beharko litzateke Z6-n (27), akzidentearen eta zertasunaren arteko berbera ezintasuna adierazteko, lehenari datzekion esanahi bikoiztasuna (τὸ διττὸν σημαίνειν). Akzidentek esanahi bikoitza du bere existentziak eta bere ulergarritasunak sujetu desberdina behar dutelako, bere existentzia eta adigai bereiziko direlako. Akzidentea atxekitzean batera-gertatze bat egongo da sujetuaren eta predikatuaren artean, batera gertatuko dira gizon eta zuri baina ez dugu behar gizona zuritasuna ulertzeko eta ezta ere zuritasuna gizatasuna ulertzeko.

Akzidentez (kata symbebekos) hitz egin ahal izateko akzidentearen existentzia izango zaigu derriorrezko eta existentzia honen baldintzak, beste zeozertaz esana izan behar horretaz beste ez beharrean eta ezta ere gehienetan horrela gertatzea izango dira. Honekin zientziaren, ez hizkuntzaren, bi baldintza ukatzen zaizkio akzidenteari: beharkizuna eta sujetua -existentzia sujetua- den kasu gehienetan ematea; akzidentea batzutan (ΠΟΤΕ) ematen da sujetuan, gizona batzutan bakarrik izango da zuri. Hitz egin ahal izango dugu gizonaren zuritasunaz, orokor bat, era bat, zuri, izango bait dugu sujetuari atxekitzeko, baina ihardun hau ez da ihardun zientifiko bat izango, ez da ez beharrezko -izatasunezko- ez gehienetan emango. Hau aipatutako sujetu logikoaren eta existentzia sujetuaren arteko eren horren bidez argitu behar da: "zuri" ez da gizonaren orokorketa bat, ez da, beraz, predikazio definitzaile bat izango eta ezta ere egongo "gizon" eta "zuri"-ren artean arteko termino bat, ez da, hortan, "gizona zuria da" saloaren silogismorik egongo, ez da frogapenik egongo.

Baina beharkizuna definitzean erabateko beharkizunaz beste beharkizun hipotetiko bat ere bereizi dugu, konposaketaren beharrezko loturaren beharkizuna alegia. Beharkizun honek ez du gaia, sujetua, bere baitan edo bakuntasunean ahitzen diren ezaugarrietan hartzen baizik eta Bere ekaizkotasunean; ekaia bere zentzu bikoitzean hartzen du, adigarri nahiz sentigarri, eta fisikaren nahiz matematikaren salo ez definitzaileen ezaugarri bat adieraziko du, hau da,

gizon aztertzean, bere ekaizkotasuna kontutan harturik, arra ala emea den hartuko du kontutan eta triangelua denean bere angeluen balioa eta azala denean kolorea izatea etab. Alabaina ez da ekai hutsa, mugagabea, izango beharkizun horren erabakitzaile baizik eta xede bateruntz doan ekai. "Fisika"-ko 2. liburua-ren 9. zatian, beharkizun hipotetikoa aztertzean hau, ekaiari lotuta legeaz ulertzen du, izan ere, etxea egite bihurtzeko adreiluak eta egurra beharrezko izango zaizkigu eta horrela egite bezala kontsideratuko ditugun gauza guztietan, egiteak beti ekai mota bat eskatuko du eta ekai berezi horretan egongo da bere beharkizuna baina, ekai horretaz beste, ekai hori mugatuko duen, ekai hau eta ez bestea aukeraraziko duen, beharkizuna, xedea, beharko dugu. Xede honek ulergarritasunaren eta arrazoizko beharkizunaren lehentasuna ezarriko du eta beharkizun hipotetikoaren egitasuna arrazoizko beharkizunaren menpeko izango da. Ekaiak ordenu baldintza batzuek ezarriko dizkio egiteari. baina baldintzaok beti gai horren definizioak bilduak egongo dira eta berari menperatu beharko zaizkio. Beharkizun hipotetikoaren definizioaren betekizunerako beharrezkoak diren eta definizio horretan, heuren eurrekoan bezala, bilduak dauden ekaizko baldintzei dagokie. Beharkizun hipotetikoa, beraz, lähenengo hastapen batzuei darraien ekaizko baldintzen beharrezko ondorioztatzea izango da.

Hau nabarmena da bai gai matematikoetan, hau da, ekai adigarriaz osatzen diren gaian, bai ekintza edo izadia biltzen duten gai fisikoetan, hau da, ekai sentigarriaz osatutako gaian. Ez du

eragozpenik sortzen lehenengoetan, non, ekintza gogartzen ez denez, aurrekoen egia den arrazonaketaren abiapuntu; adib. triangeluan le- rroen (ekai adigarria) zuzentasuna bere angeluen bi zuzenen balioa izatearen abiapuntua da; baina ez da berdin gai fisikoei dagokienean, hauetan xedea da aurrebaldintzen (adreilu, egur, etab.) aurreko, baina hegien ere xedea izango da arrazonaketaren hastapen eta izadian ere arrazoimenaren aurreko ondorio egitura bera aurkituko dugu (28).

Beharkizuna aztertzean azaldu zaizkigun bere bi adieraon arau- ra, orduan, onartu behar dugu badirela ezgupen gaien ezaugarriak, izatasunezkoak ez izan arren, kontzeptu hutsean adieraziak ez izan arren, beharkizunaren bigarren ahalbidea beteko dutenak, hau da, kontzeptua aurreko bezala harturik aurreko-ondorio harremarketatan emango direnak eta ekaizko baldintzen pean xedeari menperaturik be- ti emango direnak. Honela akzidentearen eman dudan definizioa bi- garren baldintza nolabait gaingitzen da. "Ez beharrean eta ezta ere gehienetan" esan digu Aristotelesek honela zientziazako bidea ukatuz, baina, ikusi dugun bezala egongo dira gauzaren gertakizu- nean beharrean eta gehienetan emango diren gertakariak, akzidenteak, eta hauek izango dira, azken batean, ezagupen frogatzailearen gaiak.

Akzidenteak, horrela ulertuta, berataz bai hizkuntza eta baita ezagupena egotea zilegituko digu. Batera gertatze hutsean diraugu- nean ez da adimenezko inolako loturarik egongo sugetu eta predika- duaren artean baina batera gertatze horri kath'auto gertatze bat edo gehienetan gertatze bat gainera diezaiokegu oraindik, kath'auto ger-

gatzearen bigarren mota hain zuzen; kasu honetan gauzak batera gertatuko dira baina adimenezko lotura bat ere egongo da predikatuaren eta sujetuaren artean. Egia esan, sujetuak ez du predikatuaren premiarik izango bere ulergaitasunerako baina predikatuak bai izango du premiazko sujetua bere definiziorako. "Gizona zuria da" genio_{nean}"zuri"-k ez zuen beharrezko "gizon" bere definiziorako, izan ere, bere gauzatzeak ez dagozkia gizonari gizon bezala, ez da gizatasunaren ondorio eta, bestalde, ez da gizonaz *ἄνθρωπος* esaten; ez da berdin "ar" edo "eme" diogunean: gizakiaz definizioa ematean ez da ar edo eme den adierazten, ez gagozkio bere ekaizko baldintzei buruz mintzatzen, gizonaren arimaren definizioa ematen bait dihardugu (29). Baina definizio horretan ekaizko baldintzak aurremugatuak egongo dira eta baldintzaok definizio horretara jo beharko dute heuren definigarritasunean. "Gizona zuria da" diogunean gizonari ez diogu predikazio definitzaile^K gaineratzen, "ar" edo "eme" ez dira kontutan hartuko bere definizioan, baina "ar" edo "eme" definitu nahi badugu ezingo dugu horrelakorik egin animaliatasunera jo gabe, "gizon"-en definizioaren elementu bat dena eta berdin zuritasunarekin eta azalarekin: azalak ez du behar bere definiziorako zuritasunik ez kol^orerik baina kol^orearen definizioak azala aurreuposatzen du edo, beste hitz batzutan, azalaren ekaizko baldintzatan beharrezkoa da kolorea.

Sujetu logikoaren eta existentzia sujetuaren arteko bereizketa azarri badut ere hemen azpimarratu behar da biak ezin direla

erabat banandurik ulertu, izan ere bien artean harremanketa hestu bat egongo bait da, predikazioan orokorketa birraurkeztearen harremanketa; "gizona zuria da" esatean batera gertatze bat adierazten dugu baina hemen "gizon" banako bezala kontsideratzen dugu, banako batekiko atxekipen bat da eta ezin dugu hortik inolako ondoriozterik atera baina sexoduna izatea gizonari orokor bezala atxekitzen zaio, "gizona sexoduna da" gizona emango den ekaizko baldintza orokorri atxekiko zaion ezaugarria izango da, "gizon" hori orokorra izango da. Biqoiztasun, eta kidetasun honen bidez ulertu beharko litzateke "gizon"-en definizioa arimarena dela esatea alde batetik baina bestalde ekaizkotasunarekiko lotura, lehenean orokorra ekaizko baldintzak kontutan hartu gabe kontsideratuko litzateke eta bigarrenean kontzeptuaren eta ekaiaren arteko nahasketa baina azken hau orokorki kontsideratua atxekiko litzaioke sujetuari; bi ikuspegiok "Metafisikako bi pasartetan adierazten dira: Z11-n definizioak ezin duela ekaia kontutan hartu dio, mugagabetasuna sartzen bait du eta horregatik "gizon"-en definizioa arimarena, bere erarena izango litzateke baina behin definizio hori ezarrita, eta bera xede bezala hartuzik, dagokion ekaia hartu beharko da gauzatzen den kasu guztiekiko orokorki kontsideratuko dena.

Azken ohar bezala komeni da azpimarratzea existentzia sujetuaren edo frogapenaren bidearen garrantzia Aristotelesen lan guztian, zeren definizioa lehen bat baldin bada ere, egia irmoena, bere helburua, azken batean, ez da izango beste ezagupena oinarritzea

baino, ezagupen frogatzailearen markoa ematea baino. Izan ere Aris-
totelesen kezka mundu sentigarriaren ezagupen zientifiko bat bide-
ratzea da eta hau ez da ezagupen definitzailean emango, ez da ekaiz-
ko baldintzak kontutan hartu gabe emango.

ESANAHIA ETA IZATASUNA

OHARRAK

- 1) Zentzu honetan mintzo zaigu "Arimeri buruz" tratatuan, 425b 29:
"sentigarriaren eta sentipenaren egitea bat bedera da, nahiz eta heuren zertasuna ez den bera."
- 2) Ik. Met. Δ 15, 1021a 26-b2
- 3) Ar.-k zenbait lekutan azaltzen du "panta heri" horrekiko etsaigoa:
ik. Γ 4, 1006b 17, Z 11, 1036b 20, Z 12, 1037b 24, etab.
- 4) Ik. zentzu honetan H 3, 1043b 34 ur. eta I 1.
- 5) Heraklitori dagokionean 31. zat. beg.; Aristotelesi dagokionean
ik. Bonitz, Index 437a 40 ur. "logos i q ratio mathematica."
- 6) A. C. Lloyd, "Form and Universal in Ar." 3. or.
- 7) J. M. Moravcsick, Ar's Theory of Cat."; "Ar. a Collection", ed. Moravcsick.
- 8) "izatasun" hitza erabili dut "ousia" itzultzeko. Hitzaurrean emandako arrazoiari bi oharrok gaineratuko nizkieke: 1) Zenbait itzulpenetan "entidad" bezala azaltzen da, euskeraz "izaki"-ren kidekoa izango litzatekeena baina azken honek ez du gordetzen lehenengoaren jite abstraktua, "izaki"-k zeozer konkretua adierazten du eta ez du bali, beraz, ideia hura bngi azaltzeko. 2) Eman dudun itzulpenaren analogoak izango lirateke alemanerako "wesenheit" eta ingeleseko "beingness" "ousia"-ren itzulpen literalak ere.
- 9) Kat. 3b 10.

- 10) Ik. H 1, 1042a 25-30.
- 11) "Arimari buruz" II, 10, 424a 18.
- 12) Zentzu honetan mintzo dira, beste zenbaiten artean, W. Leszl, "Logiz and Met.", 13. or., P. Aubenque, "El problema del ser" 181. or.
- 13) J. Owen, "The Doctrine of Being", 386. or., 46 eta 47. ohk. Hemen Owenek "tode ti"-ari buruzko zenbait interpretazioen laburpen interesgarri eta argigarri bat ematen du, expresio hau A. Preiswerken ahotan jartzen duelarik
- 14) Terminologia hau L. Wittgensteinek erabiltzen du bere "Philosophical Investigations"en (itz.) 845, 21.Or., baina G. E. L. Owenek Aristotelesen interpretazio batetan ere erabiltzen du "Ar. on the Snares of Ontologie" artikuluan; "New Essays on Plato & Ar." 79. or., ed. R. Bambrough.
- 15) ↑ 1006a, 32-34.
- 16) Garrantzizkoa deritzot iraganari aipamen hau eta zentzu horretan hobesten dut I. Düring itzulpena "ciò che era l'esser questo (singolo)", "Aristotele" 91. or (itz.) J. Owensek ("The Doctrine of Being") eta G. E. M. Anscombek ("Three Philosophers") ematen dutena baino, ez bait dute iraganerako aipamenik egiten; J. Owensek, ibid. 181-188 or., hitzari buruzko azterketa sakon bat egiten du itzulpen literalari "what was being" leritzukeelarik baina "was" horrek beharrezko izatea ("being"), denboraz atetiko izatea ("timeless being"), adierazten duenez ingleserara "what is being" bezala itzultzen du. Anscombek esapide honen eta "to dat. einai" erakoen azterketa aipatutako libu-

ruaren 24. or-tik aurrera egiten du "ti en einai"-a "the what-is-it to be" bezala itzultzen duelarik.

17) Jarrera hau da J. L Ackrillek defendatzen duena bere " Aristotle's Categories and De Interpretatione.- Translation with notes and glossary" lanean hasieratik; "Kategorien" komentaketaren hasieran, 7o. or., honela mintzatzen da: "but it is important to recognize from start that the "Categories" is not primarily or explicitly about names, but about the things that names signify."

18) H 1, 1042a 13-14. "baina gertatzen da arrazonaketaren bidez beste izatasun batzu sortzea: zertasuna (ti en einai) eta "azpian datzana" (hypokeimenon)". "ek ton logon" Rössen. (II A. 226. or.) eta Tricoten interpretazioaren arauera itzuli dut eta ^{e?}Garcia yebrak egiten duen bezala "desde el punto de vista de los enunciados", azken aukera hau anbiguo xamarra izango litzateke.

19) Z 7, 1032b 14: "zertasun ekairik gabeko izatasunari dēritzot".

20) Honela definitzen du Tricotek, "Seconds Anal." 174. or., oh.: "et"to ti en einai", qui est le total unifié des éléments de la définition, et est le propre du défini"

21) "An Post." II 7, 92b 7.

22) Expresio honetaz eta "zerbait"-az tratamenduz ik E. Tugendhat, "Traditional & Analytical Philosophy" 3. irakurketa 21. or eta ur.

23) Ik. Γ 4, 1007 a 25-27.

24) Γ. 1006b 20-22.

25) Z 17, 1041b 1.

- 26) Honetaz ik. "Ezagupena eta hizkuntzaren egiturak" atala "Bakunaz" zatian.
- 27) Tricot, "La Metaph." I a. 450. or. 1. oh.
- 28) Ik "Orokorren existentziaz" atala 3. oh.

OROKORRAREN EXISTENTZIAZ

OHARRAK

- 1) B. Dumoulin, "Sur l'authenticité des Catégories d'Ar."; "Concepts et Catégories dans la Pensée Antique", ed. P. Aubenque.
- 2) Expresio hau, nola "jacent au fond", "azpian datzana"-ren iturri izaago litzatekeena, R. Boehmen "La Métaphysique d'Aristote - Le Fondamental et l'Essential" lanean oinarrituta dago.
- 3) S. Mansionek, "la première doctrine de la substance"; "Recueil d'articles" 29. or., gehiegikeria deritzo ekaiarekiko atribuzio hori: "Le Stagirite abuse en quelque sorte du langage quand il dit que l'essence s'attribue à la matière comme à un sujet." Izan ere atxekitzeak nolabaiteko mugapena beharko luke bere sujetuan; "materia est homo" esan beharrean "hoc materialium est homo", et être matériel déterminé est homme." esan beharko genuke. Hau da Aristotelesen zehazten duen bere bigarren baldintzarekin.
- 4) Met. Z 3, 1029 a 27-30.
- 5) Met. Z3, 1029 a 13.
- 6) H 3, 1043 b 10-12.
- 7) Met. Z 3, 1029a 21-23.
- 8) J. Tricot, "La Métaphysique" I. A. 348. or. 2. oh. "En réalité, Ar. veut dire que, à la différence des autres catégories, la substance n'est autre que la chose individuelle, complète par elle-même, avec toutes ses qualités et ses relations, et, comme telle, elle

peut exister à part"

- 9) Ik. V. Gomez Pin "El orden aristotélico" 50-51. or.
- 10) Z 15, 1040 a 2.
- 11) I. Düring, Aristotele (italierako itzulpena) 77. eta 115. or.
- 12) M. Mignucci, "La Teoria Aristotelica della Scienza" 319. or.
- 13) J. Vuillemin, "De la Logique à la Théologie" 110-116. or.
- 14) P. Aubenque, "El problema del ser en Aristóteles" 199. or eta ur. eta 216 eta ur.
- 15) Ibid. 216. or.
- 16) Ibid. 226. or.
- 17) L 3, 1070 a 22.
- 18) Z 13, 1038 b 34 ur.
- 19) Ideia berdintsua aurki daiteke E. Tugendhaten "Traditional & Analytical Philosophy" (itz.) 35. or.ean: "If one asks why Aristotle included predicative determinations as well as objects in his formal thematic the answer must be: because predicative determinations, although not objects, are at least determinations of objects."
- 20) J. Vuillemin aip. lana, 112. or.

EZAGUPENA ETA HIZKUNTZAREN EGITURAK

OHARRAK

- 1) Pasarte hauen zehaztapen bat S. Mansionek ematen du "Plus connu en soi" "plus connu pour nous" une distinction epistemologique importante chez Aristote" artikuluan; "Recueil d'articles" 213. or.
- 2) "Topikoak" Z 4, 141b 13.
- 3) A 7, 1072a 30-34
- 4) Hitz hau "simpliciter"-en sinonimo bezala agertzen zaigu eskuarki eta nolakotasun eza adierazten du. "Abstraktu" bezala Garcia Yebrak Z 10. 1035b 1-n itzultzen du eta "erabateko" zentzuan Z 2 1028a 31, Z 4, 1030 a 23, eta Tricotek ere "Big An."etan, 72a 3, "absolue" bezala itzultzen du; hartuko litzukeen beste adiera batzu "bakun" edo "banako" izango lirateke. J. Hintikkak bere "Time and Necessity" lan bilduman zenbait lekutan tratatzen du: ik. adib. 12-13. or eta 158-159. or.; baita ere Lloydek hartzen du kontutan: "form and Universal" 7. or., eta P. Aubenquen artikuluan baten gaia izango da "La pensée du simple dans la Métaphysique". "Haplos"-a pentsamendu aurreihardun-kariaren gaia izango litzateke, ezagupen intuitiboarena, ezingo bait luke denboraren baitango inolako nolakotasunik jasan.
- 5) I 1, 1053a 20, b5.
- 6) I 1, 1052b 15-20
- 7) I 1, 1052b 34.
- 8) 1049a 23.

- 9) Ik. Hintikka, aip. lana 159. or.
- 10) H 3, 1043b 25.
- 11) Tanjere honetako kuadrua J. Vuillemin, "DE la Log. a la Ontolo."-n, 48. or., aurkituko da.
- 12) Z 13, 1038b 10-16.
- 13) J. M. Bayon, "Diccionario Manual Griego- Español.
- 14) Platon, "El Sofista" 253b 9 ur.
- 15) 10, 1051b 3.
- 16) Big. An. 90a 31-34.
- 17) A 5, 1015a 20 eta ur. eta A7, 1072b 10ur.
- 18) "Kategoriak" 3b 24
- 19) "Fisika" II 9 eta "Lehen Analitikoak" I 10, 32b 39.
- 20) Honetaz ik. Mario Mignucci "La Teoria Ar. della Scienza" 251. or. eta ur. eta A. Mansion "Introduction a la Physique Ar." 285. eta ur.
- 21) B 2, 997a 8-9.
- 22) "Bigarren Analitikoak" 73a 26.
- 23) Ibid. 73a 34-36.
- 24) Kath'autoaren zentzu logiko edo ontologikoaren arteko eztabaida-ri buruz ik. M. Mignucci aip. lana, 275. or. 82. oh.
- 25) Bonitz 714a 20. "Symbebekos, id quod fortuito alicui substantiae inhaeret, ac vere de ea praedicatur."
- 26) A30, 1025a 14.
- 27) Z 6, 1031b 23.
- 28) Interpretazio hau Rossenean oinarrituta dago, Aristotle's Physics

531-532." or: "And (it is implied) the unconscious working of nature is analogous to the conscious working of human purpose; in both cases it is the end that necessitates the means, not viceversa."

29) Z 11, 1037a 28.

BIBLIOGRAFIA

Aristotelesen testuak.Metafisika:

D. Ross, Aristotle's *Metaphysics*, a revised text with introduction and commentary, Oxford University Press 1924 (ed. 1981)

V. Garcia Yebra, *Metafisika de Aristoteles*, ed. trilingüe, Gredos 1970 (ed. 1982) Madrid.

J. Tricot, *La Métaphysique*, Paris, J. Vrin ed. 1981.

Logika:

L. Minio Paluello, *Aristotelis Categoriae et Liber De Interpretatione*, Oxford University Press, 1949, (ed. 1978)

W. D. Ross, *Analytica Priora et Posteriora*, Oxford University Press, 1964 (ed. 1978).

- *Topica et Sophistici Elenchi*, Oxford, 1958 (1979)

itzulpenak:

Ackrill, *Categories and De Interpretatione*, Translated with notes and Glossary, Oxford, Clarendon Press, 1963 (ed. 1979)

M. Candel, *Categorías, Tópicos, Refutaciones sofísticas*, Madrid, Gredos 1982.

J. Tricot, *Categories, de l'Interpretation*, Paris, J. Vrin 1977.

- *Les Seconds Analytiques*, 1979.

Fisika:

W. D. Ross *Aristotle's Physics*, A revised text with introduction and

commentary, Oxford University Press, 1936 (ed. 1979).

Itzulpenak:

E. Gonzalez Blanco, Madrid, Bergua 1935.

Acerca del Alma:

itzulpena:

T. Calvo Martinez, Madrid, Gredos 1978.

Platon

A. Tovar, El sofista (ed. bilingüe) Madrid, Instituto de Estudios Políticos, 1959 (ed. 1970).

Osagarriak

Bonitz, Index Aristotelicus, secunda editio Akademische Druck- u. Verlagsanstalt, 1955.

J. M. Pavon, Diccionario Manual Griego - Español (ed 1970).

Aipatutako Aristotelesi buruzko liburuak.

G.E.M. Anscombe, three philosophers, Oxford, Basil Blackwell 1961.

P. Aubenque, El Problema del ser, (itz.) Madrid, Taurus 1974.

- (ed.) Études sur la Métaphysique d'Aristote, Paris, J. Vrin 1979.

- (ed) Concepts et Catégories dans la pensée antique, Paris, J. Vrin 1980.

R. Bambrough, (ed.) "New Essays on Plato & Aristotle" , London Routledge & Kegan Paul 1966.

R. Boehm, La Métaphysique d'Aristote, Le Fondamental et l'Essential (itz.) Paris, Gallimard 1976.

B. Dumoilin, "Sur l'Authenticité des Catégories d'Aristote"; Concepts et Catégories (P. Aub.)

I Düring, Aristotele, (itz), Biblioteca di Filosofia Mursia, 1976.

V. Gomez Pin, El Orden Aristotelico (itz.) Madrid, Ariel 1984.

- J. Hintikka, *Time & Necessity, Studies in Ar's Theory of Modality*, Oxford University Press, 1973 (ed. 1975).
- W. Leszl, *Logic & Metaphysics*, Padova, Antenore, 1970.
- A. C. Lloyd *Form & Universal in Ar.*, Liverpool, Francis Cairns, 1981.
- A. Mansion, *Introduction à la Physique Ar.*, Paris, J. Vrin.
- S. Mansion, *Études Aristotéliennes - Recueil d'Articles*, Louvain, Editions de l'Institut Supérieur de Philosophie, 1984.
- J. M. Moravcsick, *Ar. a Collection of Critical Essays*, New York, Anchor Books 1967.
- G.E. L. Owen "Ar. on the snares of Ontologie, New Essays ed. Brambrough.
- J. Owens, *The Doctrine of Being*, Toronto, Canada, Pontifical Institute of Mediaeval Studies, 1951 (ed. 1978).
- E. Tugendhat, *Traditional & Analytical philosophy*, (itz) Cambridge University Press 1982.
- J. Vuillemin, *De la Logique à la Theologie*, Paris, Flammarion 1967.
- L. Wittgenstein, *Philosophical Investigations*, (itz) Oxford, Basil Blackwell 1958 (ed. 1981)
- M. Mignucci, *La teoria Ar. della Scienza*, Firenze, Sansoni 1965.